

# uk

225. zenbakia / 2012ko abenduaren 21a





# URTERO 20€

Urtero UK aldizkariaren 20 zenbaki  
 Urtero Uribe Kostan gertatzen denaren berri  
 Urtero eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean  
 Urtero argazki zahar eta barriak  
 Urtero zure proiektuak lau haizetara  
 Urtero 20 euro

**uk**  Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtero 20 euro.

[www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz) neuk ere gura dot UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

PASIOAK LEHEN ERE BAZUEN BERE KOLOREA,  
 ORAIN FORMA EMAN DIOGU



www.renault.es / 902 333 500

RENAULT QUALITY MADE BETI GOGORATUKO DUZU IKUSI ZENUEN LEHEN ALDIA.

- Energy motorizazio berriak - TCe eta dCi - 90ZP
- 5 izar Euro NCAP (2012 testa)
- Multimedia ukipen-pantaila nabigatzailearekin

**DRIVE THE CHANGE** 

Clio Berriaren gama: kontsumo mistoa (l/100km) 3,6 eta 5,5 bitartean. CO<sub>2</sub> emisioa (g/km) 93 eta 127 bitartean. 

**BILBO BERRI** JON ARROSPIDE, 20. TEL 94 448 39 00. DEUSTU · www.bilboberri.com  
**LEIOA BERRI AUTO** IPARRAGIRRE ETORBIDEA, 94. TEL 944 80 42 90. LEIOA · www.renault.com

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte  
 HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO  
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337  
 ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga  
 ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate, Nere Gujarrubia, Irantzu Sagaminaga  
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka  
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega  
 KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Armando Llamasas, K. Olate, Amaia Arriaga, Pedro Garcia Larragan, Arizta Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte  
 MARRAZKILARIA: Dogan Gozel  
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)  
 FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00  
 ISSN: 1576-6799  
 © Boluntzarreta



### ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

 Getxo UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara zerbitzua	 Leioa UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua	 BERMEO UDALA
 Erandioko Udala	 Sopelako Udaleko	 Urdulizko Udala
 Plentziako Udala	 Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du	
 Bizkaiko Foru Aukundia Diputación Foral de Bizkaia Departamento de Cultura		

## Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Berbodromoa, abenduaren 3an.
6. FACEGUK. Zelan biziko dituzu krisian murgildutako Gabonak?
7. LEHEN ETA ORAIN. Avanzada (Leioa).
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Laurita Siles.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

### SAKONEAN

26. ALBUMA. Urdulizko zaldi-probak.
28. ARGAZKIA. Olatutzarrak Plentzian.
30. BERBETAN. Akaitze Kamiruaga.
34. FOTOGRAFIA. Fede Merino.
40. SAKONEAN. Maia-egutegia; munduaren akabua?.

### KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Lekaitioko Euskal Zinema eta Bideo Bilerak.
43. MUSIKA. Jare taldearen kontzertua Sopelan.
44. LIBURUAK. Literatura entzuteko ekimenak.
45. KIROLAK. Castañeda eta Arraiza triatlolariak.
46. ELKARRIZKETA. Fernando Calvo Gaztañaga.
47. JENTILKOKA. Majuren koplak.

### AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Intxaur-saltsa.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Sopelako Etxebarria familia, 1951.
54. AITORMENAK. Mari Domingi.

Azala: Fede Merino

[www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz)



30 Akaitze Kamiruaga

### Berbetan

Urduliztar filologoak Gabonetako ohituren eta beste kontu andanaren barri emon digu.



11 Laurita Siles



46 Fernando Calvo Gaztañaga

## aldizkaria etxean jaso gura baduzu

### HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....  
 Kalea/zenb..... Herria.....  
 e-mail.....  
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero  20 euro  30 euro  50 euro  
 beste kopuru bat ..... euro

Kontu zenbakia (20 digito)  
 □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa, 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37



**K.Olate**

# Txirristan

“Haurzaroko oroitzapenak” gaia jarri zituen estreinako solasgai gisa Faturako Berbodromoan bildu ginen lagunoi. Gaztea zen, neu ezik, mintzakide taldea. Nire txandan umetako pasadizo bat kontatu nuen, nekazal girokoa, eta irudipena dut antzinako baserriren bateko ganbaratik Getxo urbano eta modernora eroritako espejizimena iruditu nintzailela berbakideei; koordinatzailearen oharkizun solemneak –“hona hemen inoiz baserrian bizi izandako norbait!”– areagotu egin zuen nire anakronismo sentsazioa. Denontzat pasatzen da, ordea, denbora, eta konturatu nintzen taldeko gazteek ere gauzen mudantzari buruz gogoeta egiten hasiak zirela, nahiz eta aldaketen erakusle aipagarriena beren haurtzaroko txirrista apalen eta Bidezabalgo super-parke berriaren arteko konparazioa izan.

Dena dela, iraganerako begirada ohikoagoa da urteetan aurrera egin ahala. Erretirora iritsi garen lagunaren artean sarri darabilgun gaia da, adibidez, gure bizi-denboran eman den eraldaketa politiko, sozial zein ekonomikoa. Azken hau baino ez aipatzearen, egia da itzela izan dela bizi baldintzen hobekuntza, denborak eta nostalgiak orduko urritasun, ospel eta adabakien oroipena leuntzen badigu ere. Oro har malkarretik zelairako bidea egitea tokatu zitzaigun eta, normala denez, aise ohitu ginen larre motxetik belaze mardulagora, hainbestearino non sinestra iritsi ginen aurrerabideak ez zuela bueltarik. Oker geunden, ikusi denez, antzinako urrats hura geldotzen hasi baitzen, lehenik, gero balaztada bortitzez geratu eta itzulerako bideari ekiteko.

Ondasun naturalen eta pertsonen neurrigabeko ustiaketan eta esplotazioan oinarritutako hazkundea muga jo bazuen ere, ez du mugarik jo arestiko hazkunde aldiaren etekinaren gaina eta bikaina poltsikoratu zutenen diru-zaletasunak: hazkundearen xedea baztertuta ere, ez dute etekinak metatzen ja-



rraitzea baztertu nahi. Izan ere, neoliberalismoaren helburua –aipamena Algortan erro-tutako Jose Elorrieta loiutarrak kaleratu berri duen liburutik hartua– ez da aberastasuna emendatzea, dagoen aberastasuna beste modu batean banatzea baizik: jende xeheari ahalik eta gehien kenduz, dirudunei emateko. Ondorioak agerian daude: enpleguen, soldaten zein gainontzeko lan kondizioen eta era guztietako babes sozialaren narriadura, batetik; langabeziaren, txirotasunaren

eta bazterketa sozialaren hedapena, bestetik. Herritarrak atzerabidean jarri gaituena ez da, beraz, inolako patu edo halabehar ekonomikoren emaitza, aberatsenen aldeko eta gainontzekoen kalterako birbanaketa operazio erraldoia baizik. Berbodromoko lagun gazteak aipatu zuen Bidezabalgo parkea etorri zait, bat-batean, gogora, eta geure burua ikusi dut, ahal den moduan txirristaren goiari helduta, iraganeko gabeziatar amilarazteko tira eta bultza ari zaizkigun bitartean. ○

**gu geu**

## Irribarrerik ez murriztu!

Inork, ezta krisiaren izenean ere... Ez diezagula irribarrea murriztu!! Mota askotako irribarreak daude, eta erabilera asko izan ditzake irribarre batek. Aho bete hortzekoa, garbia, zuria, osoa, harroa, bat-batekoa, ozena, ixila, lohia, haginaren falta duena... Limurtzeko, ligatzeko, iraintzeko, erakartzeko, duintasuna adierazteko, animoak emoteko, zirikatze eta abarrerako asmoz eginak. Irakurle, erabil egizu zure irribarrea!

Hamaika modu dago urteari agur esateko, beste horrenbeste hurrengo urteari “ondo etorri” esateko... Guk, zuri ala beltz erabakitzeotan, irrien alde! UK egiten laguntzen duzuen dan-danei gure esker ona, hurrengo urtean bere aurrera egin dezagun, zuentzat gure iririk maitakorrena!

Urte barri-irri on! Hala bedi!

**UK-ko lan-taldea**

**Berbaz berba...** / Apurka-apurka, berba eginez ikasten da euskara. Euskal Herriko hainbat eskolotan legez, Getxoko Berbalagunek ere egin zuten Berbodromo abenduaren 3an, Euskararen Egunean, Egizuren ekimenez: lauzpabost laguneko talderen banatuta, hainbat gai buruz berba egin zuten parte-hartzaileek, euskara praktikatu, Berbalagun ekimenaren ildo berean. Getxokoak Faturako erretegi ohian elkartu ziren: lau saio egin zituzten eta 300 bat lagun hurbildu zen. Erandion ere egin zuten Berbodromoa, Altrzagako azoka ohian. Euskaldun, badakizuri: astindu mihina eta egin euskaraz! ○ / Argazkia: Asier Mentxaka



Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

# Zelan uste duzu biziko dituela jendarteak krisian murgildutako Gabonak?



Algorta

**Olatz Agirre**

> ikaslea

Nik uste dut krisiak eragina izango duela gizarte osoan; oro har, nabarituko dela krisian gaudela. Nahiz eta ni ez naizen erosteketz-eta arduratzen, ziur nago gure etxean zer edo zertan nabarituko dela; berbarako, agian, janaria edota opariak erosteko ez dugu hainbeste diru xahutuko.



Algorta

**Iraide Sanz**

> ikaslea

Nire ustez familia guztiek murrizketak egingo dituzte; etxe gehienetan gutxiago xahutzen saiatuko dira; opari merkeagoak erosten edo hainbeste janari ez erosten. Nire kasuan, berbarako, opari merkeagoak erosiko ditut, ez dut beste urte batzuetan beste xahutuko.



Algorta

**Joserra Onandia**

> jubilatua

Nire aburuz jubilatua, langabe eta langileek oso ezberdin biziko dituzte Gabonak; langileek iaz bezala biziko dituzten bitartean, langabeek diru gutxiago xahutuko dute; azkenik, jubilatuoak modu antzekoan biziko ditugu. Izan ere, lana daukanak ez du arazorik, baina besteek...



Algorta

**Iñigo Bilbao**

> pentsionista

Gure etxean, esaterako, ez da nabarituko; emazteak eta biok soldata berdina daukagu-eta. Nahiz eta hori horrela izan, normalean guk ez dugu gehiegikeriarik egiten, eta oro har, janari zein oparietan ez dugu askorik xahutzen.



Getxo

**Jose Manuel Perez**

> jubilatua

Gure etxean, uste dut ez dela asko nabarituko. Baina, argi dago gizartean badela jende asko oso txarto pasatzen ari dena; oro har, garai oso gogorak datozkigu, eta batzuek egoera latza bizi dute, beraz, Gabonak ere ez dituzte ondo pasako.



Algorta

**Javier Melero**

> administraria

Nik uste dut oraingo Gabonak iazkoak bezalakoak izango direla. Kontua izango da datorren urtean zelan egongo garen; egoera okerrera doa. Aurten, azkenean langile publikoek ordainsaria izango dute, baina hurrengoan ez dut uste. Datorren urtean egoera askoz kaxkarragoa izango da.



## Iraganez doa denbora\* beti / AVANZADA (LEIOA)

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



## uribitakora &gt; gabon kanta



Testua: **Juani Peñagarikano** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

\* Doinua: *Gernikako Arbola* edo *Markesaren Alaba*

Badator Egu-Berri gure etxeetara herri osoa kantari doa kaleetara.

Gabonak dira beti jai bihotzekoak oroitze ezabaezinak haurtzaroetakoak.

UGabon kantak ahoan turroi mahai gainean kopatxo ezpain artean sua bihotzean.

Portalian artzainak izarra zeruan abereen artean Jesustxo maitea.

Etxean goxo-goxo Epeltasunean sukaldari amatxo ari da lanean.

Goza dezagun pozez jai hauen mamia banatu maitasuna anaiei artean.

\*Noiz edo noiz egin legez, aurten ere, urteko azken zenbakirako, Juani Peñagarikano harpidedunak UK-ko postara tradiziozko bertsoak bidali dizkigu. Eskerririk asko Juani zure opariagatik!

## txirri, mirri eta txiribiton &gt; Leioan eta Sopelan



Txirri, Mirri eta Txiribitonon azken emanaldiak

**Oholtza** gainean, txikienen irribarreak helburu, 40 urtez ibili ostean, agur esateko ordua heldu zaiela erabaki dute Txirrik, Mirrik eta Txiribitonek. Han-hemen azkeneko emanaldiak eskaintzen dabilta euskal neska-mutulen hainbat belaunaldi barrez eta kantuan ipini dituzten pailazo ezagunak. Hiru pailazo entzute suakaz batera, euren ordezkari gazteak ere izango dira oholtza gainean: Txirri ju-

nior, Mirri junior eta Txiribiton junior. Hala, *Agur lagunok* ikuskizunagaz gozatzeko, gure eskualdean aukera bi izango ditugu: Kultur Leioan, hilaren 30ean, 18:00etan (sarrera 5 euroan salgai) eta Kurtzio kultur etxean (Sopela) urtarrilaren 3an, 16:30ean eta 18:30ean (sarrera: 12 urtetik beherakoentzat 5 euro eta adin horretatik gorakoentzat 7 euro). ○

Info+: [www.txirrimirritxiribiton.com](http://www.txirrimirritxiribiton.com)

## katalogoa &gt; euskarazko produktuak

**Musika**, filmak, informatika, aldizkariak, komikiak, liburuak, jostailuak eta jokoak, gurasoentzako materiala e.a. jasotzen ditu Euskarazko Produktuen Katalogoa. Urtez urte, eta daborduko 12.a da, eskaintza handitzen eta zabaltzen doa eta bitarte horretan hamaika mankomunitate eta udal erakunde gehitu dira ekimenera, "*Nafarroako udal gutxi batzuek abiatu zuten ekimena eta 135 toki-*

*entitate dira gaur egun parte hartzen dutenak, 200 udaletik gora guztira*"; hala, zerrenda horretan Uribe Kostako gehienak daude. Udal egoitzetan banatzen diren liburuxkez gainera, web orrialdea ere badauka Katalogoa, eta bertan 0-16 urte bitarteko umeentzako eta gazteentzako produktuen zerrenda zabalagoa eskaintzen dute. ○

Info+: [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org)



0-16 urte bitartekoentzako eskaintza zabalagoa



Info+: [www.uhinbak.eu](http://www.uhinbak.eu)

## sakelakoan &gt; irratia

**Uhinbak** aplikazioaren bitartez, euskarazko irratia sakelako telefonotik entzuteko aukera duzu. Euskara hutsezko irratiz zerrenda eskaintzen du, oraintsu barritu eta luzatu dutena, eta momentuz, guztira 26 irratik osatzen dute. Horrez gainera, herrialdeka sailkatu eta mapa batean kokatu dituzte. Uhinbak erabiliz, besteak beste, hurrengoak entzun daitezke sakelakotik: Antxeta Irratia, Arraio

Irratia, Beleixe Irratia, Bilbo Hiria Irratia, Bizkaia Irratia, Eguzki Irratia, Euskalerria Irratia, Gorbealde Irratia, Hala Bedi Irratia, Info Zapir Irratia, Irulegiko Irratia, KKinzona Irratia, Ttan Ttakun Irratia, Tas Tas Irratia, Txapa Irratia, Xolarre Irratia, Xiberoko Botza, Xorroxin Irratia, Zintzilik Irratia eta Zirika Irratia e.a. Iphone eta Android mugikor sistemetarako erabilgarria da, eta dohakoa. ○

## saiazgetaria

HOTELA

Roke Deuna 25  
20808 Getaria  
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

[www.siazgetaria.com](http://www.siazgetaria.com) / [info@siazgetaria.com](mailto:info@siazgetaria.com) / Tf. (+34) 943 140 143



# UMEEN GABONETAKO TAILERRAK

## TALLERES INFANTILES DE NAVIDAD

www.arteskola.net  
info@arteskola.net

**Arteskola**

Andrés Cortina, 28

944991887 / 652751800

**arteskola**

**Gx Getxo**  
KULTUR ETXEA  
*bizi ezazu*



“Zein lekutan geratu jakin beharrak beldurra eman dezake, zelan jakin zein den zure lekua?”

### Laurita Siles eta Beldur > Leku baten bila

**Nork ez du** inoiz beldurrik izan? Nor ez da inoiz kikildu, dardarka jarri edo izu irrazionalaz jabetu? Beldurra unibertseta da, denok konpartitua, baina ez aitortua. Horretaz hausnartzeko helburuagaz, erakusketa antolatu du Laurita Siles artistak Algortako Villamonte kultur etxean. Erakusketaren protagonista Beldur da, letra larriz idatzita: “Erakusketa antolatu baino lehen, etxean behin-behinean txakur bat hartu nuen. Bere izena Beldur da, eta jabe bila dabil”. Jendeari, beste txakurrei, autoei, zaratei... beldur die Beldurrek. Hortik datorkio izena. Izana, iraganetik: “Murtziatik dator; gizon batek ehun txakur baino gehiago zituen janari eta ur barik... iraukitako patatak bakarrik ematen zizkien, alboan fabrika zegoelako”. Baina beldur pertsonalak ere islatu ditu Lauritak erakusketa honetan. Marbellan jaiotako artista-nomada honek, Islandia, Txina edo Kanada izan du bizileku, besteak beste. 2007. urtetik, baina, Algortako Portu Zaharrean dugu. “Zein lekutan geratu jakin beharrak beldurra eman dezake, zelan jakin zein den zure lekua?”. EHUUn doktoretza-tesia egiten duen bitartean, Lauritak hainbat proiektu burutu ditu gurean, ‘txalamobil’ kasu, beti ere euskal kulturagaz lotuta: “Jendeak Euskal Herrian naturarekiko eta lurrarekiko duen lotura gustuko dut”. Erakusketa urtarilaren 4ra arte dago ikusgai; ea laster Beldurren abizena ‘Barik’ den! ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**



# Gabon alaiak eta ekitaldiz josiak

**Hamaika** ekimen **prestatu** dute aurten ere **Gabonetarako**, auzoz auzo: **Olentzero, Getxolandia eta izotz pista, jarduerak kultur etxeetan...** zer eginik **ez da faltako!**



Olentzerori harrera egingo zaio abenduaren 24ko arrastian, auzoz auzo

**Gabonak bertan ditugula, ospatzeko ekitaldi mordoia prestatu dute gurean.**

**Getxolandia** eta izotz-pista izan dira abiatutako lehen ekimenak eta urtarrilaren 5era arte egongo dira: Getxolandia edo umeentzako Gabonetako parkea Areetako Geltokia plazan eta izotz-pista Algortako Biotz Alain.

Hauxe da ordutegia: abenduaren 20tik urtarrilaren 4ra 11:00-14:00 eta 17:00-21:00 zabalduko dute; abenduaren 24 eta 31n, eta urtarrilaren 5ean, barriz, arrastiz 20:00etan itxiko dute; eta, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean, itxita egongo da egun osoan. Txartelak 3,50 euro balio du: Getxolandian bost bidaiatarako da eta izotz-pistan 45 minutuko saiorako.

Kultur etxeetan ere doako jarduerak prestatu dituzte abenduaren 26tik 28ra eta urtarrilaren 2tik 4ra, 10:30etik 13:00-etara. Gainera, antzerki bi izango da Musika Eskolan: abenduaren 28an *Olentzero eta katu miragarria* eta 29an *La gran*

**«Urtarrilaren 5era arte daude: Getxolandia Areetako Geltokia plazan eta izotz-pista Algortako Biotz Alain.»**

*a...ventura*, 18:00etan eta 4 euroren truke.

Eta, noski! Olentzero eta Erregeak ere etorriko dira Getxora: lehena abenduaren 24an, bigarrena urtarrilaren 5ean. Olentzerori harrera egiteko hainbat ekimen izango da: ondoko zutabeen daukazazu. Zorionak eta urte barri on! ○

## Badator Olentzero

- **Algorta:**
  - Maia egutegiaren amaiera-jai (Abenduak 21; Geltokia plaza)
  - Potxin eta Patxin pailazoak (Abenduak 23, 18:00; Geltokia plaza)
  - Bertsolari gazteak (Abenduak 23, 19:00; Geltokia plaza)
  - Kalejira: Taberna Ibiltaria (Abenduak 23, 20:00; Geltokia plaza)
  - Umeentzako jolasak (Abenduak 24, 12:00; Zabala eskola)
  - Olentzeroren kalejira (Abenduak 24, 17:00; Benantziotik)
  - Txokolate-jana (Abenduak 24, 18:00; Villamonte)
- **Areeta:**
  - Umeentzako jolasak eta puzgarriak (Abenduak 23, 19:00; Eskoletako plaza)
  - Erromeria eta erakusketa (Abenduak 24, 11:00; Eskoletako plaza)
  - Olentzeroren kalejira (Abenduak 24, 18:30; betiko ibilbidea)
- **Romo:**
  - Olentzerok gutunak jasoko ditu (Abenduak 23, 18:00; Eliza)
  - Olentzeroren kalejira (Abenduak 24, 17:30; Romoko kaleetan)
  - Dantza erakustaldia eta txokolate-jana (Abenduak 24, 19:30; Santa Eugenia plaza)
- **Andra Mari:**
  - Jai (Abenduak 23, 19:30; Malakate parkea)
  - Olentzeroren kalejira (Abenduak 24, 19:30; kiroldegitik)
  - Amaiera-jai (Abenduak 24, 19:15; Malakate parkea)
- **Neguri-Gobela:**
  - Kalejira eta musika (Abenduak 22, 18:00; Jolas-Toki jatetxetik)
  - Kantaldia (Abenduak 22, 18:15; San Esteban egoitza)
  - Olentzerori ondo etorria (Abenduak 22, 18:45; Gernika parkea)

## @park@ sistema abian

Bizikletentzako sistema barria probatzen ari da



Apirilera arte probatuko dute @park@ sistema

**Ekipamendu** berean bizikleta publikoak mailegatzea eta bizikleta pribatuak aparkatze segurua bateragarri egiteko sistema da @park@, eta hilabeteotan probatuko dute Getxon. Beraz, Udalak dioenez, “*hiriko ziklismoaren zerbitzura izango den aurreneko sistema integratua izango da*”. Emaus Bilbao SCIS elkarteak garatu du Cedemos Mugikortasun Iraunkorreko Zentroaren bitartez.

Sistemaren aurre-serieko prototipoa Areetako Geltokia plazan kokatu dute eta hainbat proba egingo dute apirilera arte, “*bai bere funtzionalitatea, bai erabileraren esperientzia hobetze aldera*”. Cedemos-en arabera, 10 urtean 100 @park@ ipintzeak (urteko 10) ekarriko luke: gasak botatzean 1.371,39 tona CO2 murriztea, hamarkada batean 21,94 hektareako baso

barri baten eraginaren baliokidea, hain zuzen ere. Gainera, “*auto-pilaketa eta zarata gutxiago sortuko lirakeke*”.

Sistemaren ezaugarriak dira, besteak beste: aparkaleku indibiduala kaskoa eta norberaren gauzak gordetzeko konpartimentuagaz; ainguraketa atean bakarrik eta ezin da eskuz behartu; BARIK txartela eta aukera teknologiko desberdinei irekia; bizikleta elektrikoak kargatzeko aukera; zenbait erabiltzailek aldi berean erabiltzeko aukera, itxaron edo jendelilara barik; bizikleten arteko hutsuneetan sortutako plazak triziklo edota ume-aulkien formatuetara egoki daitezke; bizikleta publikoaren sistemak bateragarritasuna: ez da bizikleta aldatu behar; eta, gainera, auto aparkaleku bakoitzeko 11 bizikleta sartzen dira. ○

## ERRETZEARI UZTEKO IKASTAROA ALGORTAN

Erretzeari uzteko ikastaroa egingo dute Algortako Gazteleku 14 eta 22 urte arteko gazteentzat. Urtarrilean banakako saio batez hasi eta, ostean, taldeko lau saio egingo dute: urtarrilaren 21ean eta 28an, eta otsailaren 4an eta 11n, 18:00etatik 19:30era. Helburua da “arrisku eta onura, mito, lege, tabakoaren osaketa eta epe labur eta luzerako efektuei buruz, egiazkoa eta objektiboa den informazioa igortzea; tabakoaren kontsumoaren inguruan hausnartzea, kontsumoaren arriskuez kontzientziatzea, kontsumo soziala lantzea eta larrialdietarako artean trebatzea. Izena emon daiteke abenduaren 31 arte: etorkintza.ncrespo@getxo.net, Tuenti (Utzi erretzeari) eta 944 660 151.

## LANAK ALANGOETA ARGIZTATZEKO

Hilabete bi iraungo dute lanek Alangoetako bidean hiri-argiteriaren zerbitzua emateko, argi-puntu barriak ipiniko dituzte-eta Makoletako etorbideagaz bat egiten duen tartean. Bestalde, Algortako Iparbide kaleko kaxa elektrikoak tokiz aldatuko dituzte, egun dauden lekutik kentzeko: 8. zenbakiaren parean. Esan bezala, hil biz luzatuko dira lanek.

## BOLUNTARIOTZA SARIAK EMON DITU SAREKIDEEK

Carlos Lopez eta Eskubeltz Eskaut Taldeari emon diete “*Urteko pertsona eta elkarte boluntarioaren*” sariak, hurrenez hurren. Sarekide elkarteak emoten ditu sariok, Getxoko entitate boluntarioen elkarteak. Carlos Lopezek Argia elkarteagaz kolaboratzen du, duela bederatziti urte, buru gaixotasun larria duten pertsonak, eta Amiarde eta Eleizbarrutiko Misioko boluntarioa ere bada. Eskubeltz Eskaut Taldea, barriz, 1991tik hona gazteak ari da lanean astialdiaren esparruan, besteak beste, “*gizartearekiko pertsona konprometitua hezteko eta era integratuz hezkuntza emateko helburuagaz*”. Gaur egun 14 boluntario ditu elkarteak.



*Eguberrietako kanpainan  
prezio bereziak*

Ibaiondo 7 - 48930 Erromo (Getxo) - Tf. 94 656 21 57





**Luismi Porto** > Aisi-Hezi fundazioko proiektuen zuzendaria

## “Beharrezkoa da udal guztietan abiatzea gazteentzako astialdi hezigarrirako planak”



Info+: [www.aisi-hezi.org](http://www.aisi-hezi.org)

**Gazteentzako astialdi hezigarriaren eskaintza aztertzeke topaketa egin zen Getxon iragan azaroaren 30ean. Aisi-Hezi fundazioko lagunek gidatu zuten, eta topaketan parte hartu zuten politikariek eta udal-technikariek. Aisi-Hezi fundazioak lan egiten du astialdiaren arloan, bertan sustatzeko gaztaro, nerabezaro eta umezaroaren hezkuntza osoa eta arloko eragile eta langileei baliabideak besteganatzeko. Fundazioko proiektuen zuzendari da Luismi Porto eta topaketari buruz berba egin digu, baita bertatik atera zituzten ondorioen barri emon ere.**

—Topaketa egin duzu astialdi hezigarriaren eskaintza aztertzeke, zertarako?  
—Une honetan garrantzitsua da hausnartzea politika publikoetan egiten ari garena gazteen eta umeen astialdi hezigarriaren arloan. Prozesuan parte hartzen dute Udalek eta eragile sozialek, baita astialdi-zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresak ere. Aisi-Hezik eta Udalak agiri bat prestatu genuen elkarregaz eta Topaketan aurkeztu genuen, hizketaldi ireki bat eragin guran; agiriak jasotzen ditu egungo astialdi hezigarriari 37 hurbilketa,

baita 87 galdera ere. Hari buruz hausnartu eta eztabaidatu genuen eta hainbat ondorio atera genuen.

—Zeintzuk dira ondorio horiek?

—Lehenik eta behin, astialdi hezigarria Bizkaian indartsua dela, zerbitzuen eskaintza zabala eta askotarikoa delako: udaletatik datoz batzuk, eragileetatik besteak. Oraintsu aldaketa, doitze eta krisi unea bizi dugu, eta eragina dauka, baina aukera ere emoten du indartzeko garrantzitsua eta oinarritzakoa dena, eta berrikatzeko funtsezkoa ez dena. Bigarrenik, ezagupenerako,

erabarrizteko, ekiteko eta integrazioerako beharrei erantzuteko potentzial itzela dauka astialdi hezigarriak, eta berau gehiago balia daiteke.

### «Bigarren Topaketa bat egingo da otsailean ondorioetan sakontzeko»

—Eta orain, zelan landuko da hori?

—Hiru akordioz amaitu zen Topaketa. Lehenik, lan-talde bat sortuko da agiriaren hausnarketan sakontzeko, jatorri desberdinetako pertsonakaz: teknikariak, enpresetako edota eragileetako langileak, e.a. Bigarrenik, lan hori itzuliko zaie Topaketako parte-hartzaileei eta gonbidapena luzatuko zaie bigarren hitzordu baterako, otsailerako. Azkenik, horri guztiari buruzko informazioa emongo zaio uneoro Bizkaiko Aldundiari.

—Izan ere, gazteen heziketa osoa sustatzea da Aisi-Heziren zeregina, ezta?

—Hori da. Aisi-Hezik bost lan-ildo garatzen du eta asmoa da gazteen zein umeen astialdi hezigarriaren arloa indartzea Bizkaian. Zelan? Hainbat modutan: astialdi hezigarriko zerbitzuen garrantzia aldarrikatuz politika publikoetan; ezagutza eta barritasuna sortzeko lan eginez; jendartea sentsibilizatuz, azalduz astialdi hezigarriak berezko ezaugarriak dituela eta umeak horrelako proiektuetan parte hartzeak balio erantsia daukala euren garapenerako; azkenik, arloko erakunde eta eragileen lana aitortuz. Hori dena lantzeko zuzenean eta aktiboki parte hartzen dugu Astialdi sarean. Une honetan, beharrezkoa deritzogu Bizkaiko udal guztietan astialdi hezigarriaren arloko planak abiatzeari, norbere tamainari eta ezaugarriei egokituta, noski, aipatu helburu horiek denak bideratu ahal izateko. ○

## Kirola umeentzat

**Gabonetarako** antolatu dituzte **kirol-campusak** kiroldegietan **eta bela-eskolan**



Urtero antolatzen dituzte kirol-campusak umeentzat oportetan

**Kirol-campusak** egingo dituzte herriko hainbat kirol-klubek Gabonetan ume eta gazteentzat, Getxo Kirolak erakundeagaz elkarlanean. Aurten 14 campus eskainiko dituzte, hainbat modalitatetan. Campus gehienak abenduaren 26tik 28ra eta urtarrilaren 2tik 4ra garatuko dituzte, baina badaude abenduaren 24an abiatuko dituztenak ere, beraz adi egon!

Zehazki, Faduran izango dira gimnasia erritmikoa, igeriketa, multikirola, tenisa, irristaketa, futbola, defentsa pertsonala, Krav Maga, errugbia, ingelesa eta boleibolagaz lotutako jarduerak. Gobela kiroldegian, barriz, eskubaloia, multiki-

rolak, saskibaloia eta futbola egiteko aukera egongo da, Andra Marikoan skate eta multikirolak, eta Arrizuleko ontziralekuan bela. Ordutegiari eta prezioei buruzko informazio gehiago topatuko duzu Getxo Kirolak erakundearen webgunean: [www.getxo.net/leu/getxo-kirolak](http://www.getxo.net/leu/getxo-kirolak).

Bestalde, Fadurako Txikiguneak ordutegi berezia eskainiko du asteotan. Gogoratzea zerbitzua 3 eta 12 urte bitarteko umeentzako dela. Txikiguneari buruzko informazio gehiago, 946 016 092 telefonoan edo idatzi mezua [txikigune@gmail.com](mailto:txikigune@gmail.com) helbide elektronikora. Ondo pasa Gabonetan. ○

## ERAKUSKETAK, ZINEMA ETA IPUIN-KONTAKETAK

Ez dago etenik eta Gabonetarako ere kultur eskaintza oparoa prestatu dute Getxon. Erakusketa bi ikus daiteke Algortan: batetik, Laurita Silesen marrazkiak dauzkate kultur etxean urtarrilaren 4 arte; bestetik, Bosteko 2012 pintura-erakusketa ipini dute Torrene aretoan urte akabu arte. Baina zinemari ere lekua egin diote egunotan Areetako musika eskolan: abenduaren 23an, *Brave* emongo dute 17:00etan; 28an, *¡Que dilema!* 21:00etan, zine-klubean; eta, 30ean, *Piratas!* 17:00etan. Azkenik, *Storytime* ipuin-kontakteta izango da abenduaren 29an Algortako kultur etxean, 11:00etan.

Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

## ESKOLAZ KANPOKO EUSKARAZKO JARDUERETARAKO LAGUNTZAK

Ikastetxeek eta guraso elkarteek antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jardueretan euskara sustatzeko diru-laguntzak onartu ditu Udalak eta 40.000 euro banatuko du. Dirua 25 elkarte eta ikastetxeren artean banatuko da 150 jarduera garatzeko A, B eta D hezkuntza-ereduetako ikastetxe publiko nahiz pribatuetan. Jardueren artean daude gimnasia, arte, sexualitate edo irristaketa tailerrak, txangoak, kirolak, urteerak edota euskal asteak.

Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

## ORDUTEGI ZABALAGOAK OSTALARITZAN

Abenduaren 15etik urtarrilaren 6ra ordutegi zabalagoa izango dute Getxoko ostalaritzako establezimenduek, Udalaren dekretu bati esker. Ondorioz, abenduaren 15, 21, 22, 28, 29 eta 31n, eta urtarrilaren 4 eta 5ean, (hau da, bariku, zapatu eta jai bezperatan) tabernekin eta kafetegiek 04:30 arte zabaldu ahaliko dute, pubek eta klubek 06:00 arte eta diskotekek 08:00 arte. Gabonetako gainontzeko egunetan kafetegiek eta tabernekin 03:00etan itxi beharko dute, pubek eta klubek 04:30ean eta diskotekek 06:30ean.

# lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59  
(Tellagorri plaza)  
48991 ALGORTA  
Tf. 94 491 14 12  
[gusanalibreria@gmail.com](mailto:gusanalibreria@gmail.com)



**Marta Velasco Urquia** > saxofonista eta kantaria

“Gogorra izan daiteke batzuetan, baina gustuko baduzu, bizimodu bihurtzen da musika”

**Saxofonista eta mezzosopranoa da Marta Velasco Urquia leioaztarra. Leioako Musika Banda zuzentzen du duela 12 urte eta kontzertua daukate Gabonetan Kultur Leioan. Gainera, Euskal Kantu Liriko Barriak abestu ditu Astrabuduan abenduan, Irantzu Bartolome sopranoak eta Juan Jose Ortega pianistak lagunduta.**



Kultur Leioan Gabon guztietan egiten du kontzertua Leioako Bandak; aurtengo zita: abenduak 22

—Umetan hasi zinen musikagaz eta, gixi bezala, profesionalki ari zara.

—Bai, 12 urte hasi nintzen Leioako Kontserbatorioan, nebagaz batera. Hasieran biolina ere jotzen nuen, baina handik gitxira erabaki nuen saxofoiagaz bakarrik jarraitzea. Musika ikasketak amaitu nituen, eta kantuan ere hasi nintzen, kantu lirikoagaz. Hasieran Laura Nardi irakasleagaz eta Leioako koruagaz, gerora hainbat irakaslegaz ibili naiz, baita beste abesbatza batzuetan ere: Orpheo Ganbera Abesbatza edota Kup taldean. Orain kantua ikasten segitzen dut eta kontzertuak eskaintzen ditut, adibidez, Euskal Kantu Liriko Berriak abesten ditut beste kide bigaz batera. Gainera, beti nabil proiektu barriak sortzen, musika genero desberdinak jorratuz.

—Leioako Musika Banda zuzentzen du-

zu, **tarterik daukazu beste gauzetarako?**

—Duela 12 urte zuzentzen dut Banda. Saxofoia jotzen hasi nintzen eta laster ekin behar izan nion zuzentzeari. Zailtasun gisa egiten dugu partaide guztiok, ez dugu ezer kobratzen lan horretatik, baina gustuko dugu. Denera 35 musikari inguru gara eta kontzertuak eskaini ditugu toki askotan, baita Europan ere. Gabonetan ezohiko saioa egiten dugu Leioan, berezia. Eta ez dut esan, baina saxofoi eta

kantu klaseak ere emoten ditut. Azken batean, musikagaz lotuta dago egiten dudan guztia, bizitzeko modua ere badelako. Gogorra izan daiteke batzuetan, baina oso gustuko duzunean, bizimodu bihurtzen da.

—**Gauza desberdin asko egin behar da bizimodua atera ahal izateko musikan?**

—Klaseak beharrezkoak ditut zentzu horretan, baina, gainera, oso gustuko dut irakastea, nik ere asko ikasten dut-eta. ○

## Urtea amaitzeko jarduerak

**Gabonetan** izango dira **antzerki-zikloa**, futbol-kanpusa **eta gazteentzako** ekimenak



Ahate itsusia antzetzuko dute abenduaren 26an Kultur Leioan

**Eta joan da beste** urtebete! Azkenean ez da amaitu mundua eta, hori ospatzeko, badago zertan jardun Gabon hauetan Leioan. Besteak beste, antzerkia izango da Kultur Leioan, futbol-kanpusa, eta gazteentzako jarduerak Aterpen.

*Gabonetan antzerkira* izena dauka Kultur Leioako antzerki-zikloak eta bost lan ikusteko parada izango da abenduaren 26tik 30era: hilaren 26an, *Ahate itsusia* antzetzuko du Glu Glu taldeak; hurrengo egunean, 27an, *Ulises* taularatu du Bambalina Teatre Practicablek; 28an, *La camisa del hombre feliz* eskainiko du Zum Zum Teatrek; 29an, *Moniquilla y el ladrón de risas* antzetzuko du Proyecto Titoyayak eta, 30ean,

*Gabonetan ere barrez* eskainiko dute Txirri, Mirri eta Txiribitonek. Obra danak hasiko dira 18:00etan eta sarrera bakoitza 5 euro ordaindu behar da; ziklo osorako bonoa hartuz gero, 20 euro berririk ez da ordaindu behar.

Bestalde, Iñaki Saez futbol-kanpusa antolatuko du Leioako Kirol Elkarteak 4 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Izena emoteko harremanetan ipini behar da eurek: 675 533 528, [www.sdleioa.com](http://www.sdleioa.com) edo [leioacampus@gmail.com](mailto:leioacampus@gmail.com).

Azkenik, esatea Aterpe gaztegunean tailerrak egingo dituztela urtarilaren 5era bitartean. Bertan parte hartzeko ize-na emon daiteke abenduaren 23ra arte: 944 055 850 eta [gazte@leioa.net](mailto:gazte@leioa.net). ○

## IKASMOB OSPAKIZUNA ABENDUAREN 23AN

Solasgune ekimena beste ‘Irakale’ bat garatzen ari da egunotan Leioan eta amaiera abenduaren 23an izango da, domekan, Txomin Aresti ikastetxeko patio barrian eta 11:30ean. Irakale deritzon ekimen honetan euskal ohiturei buruz aritu dira eta leioaztar guztiak gonbidatu dituzte elkarregaz kantatzera eta dantzatzera, Ikasmob deritzon ekimenaren barruan: “komunitate-topagunea da, elkarregaz ikasitakoaren ekintza sinbolikoa”. Izan ere, abenduaren 15etik egin dute hainbat jardura: taloak, euskal dantzak eta musika tresnak, zapiak eta gerrikoak jartzeko-egiteko aukerak, saioak auzokideakaz batera, herri-kirolak, txalaparta edota Leioako antzinako argazki-erakusketa. Azken jardura horretan parte hartzeko Txomin Aresti eskolara hurreratu baino ez duzu, domeka honetan.

Info: [www.herrigune.org](http://www.herrigune.org)

## ARGAZKI ETA FILM LABUR LEHIAKETETAKO IRABAZLEAK

Azaroaren 30ean banatu zituzten Leioako Argazki eta Film Labur Lehiaketetako sariak Kultur Leioan, eta ondokoak dira irabazleak. Argazki Lehiaketari dagokionez, koloretako irudi onenaren saria eskuratu du Jose Ramon Luna de la Ossak (Cuenca); zuri-beltzean, Miguel Cabezas Centenok irabazi du (Irun); multzorik onena, barriz, Unai Gardoki Izquierdorena izan da (Erandio); sakelako telefonoagaz argazkirik onena egin du Javier Arcenillasek (Madril) eta, herriko argazkirik onena, Julia Garcia Fernandezena izan da. Film Laburren Lehiaketari dagokionez, bestalde, euskarazko film onena suertatu da Carlos Rodriguezen *Berrito igo nauzu* (Donostia); gaztelarazko lanik onena, barriz, Lucas Figuroaren *Prologo* (Madril); bigarren saria eskuratu du Diana Montenegroren *Magnolia* filmak (Kolonbia), eta herriko lanik onena izan da Urtzi Perez Gerrikagoitiaren *Entre interiores*. Zorionak danei!

**MR TALLER MECANICO**  
Coches, Motores Marinos y Fuerabordas

Mota guztietako konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargelzaleak, Sainua...

Tf. 94 430 17 81

Bidezabal Kalea 9  
48993 GETXO

**BIZKAIA**  
irratia

**BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan**

F.M. 102.6 Mhz

[www.bizkaairratia.com](http://www.bizkaairratia.com)



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**  
[sustapena@argia.com](mailto:sustapena@argia.com) · 943 37 15 45



## [erandio]

**Pedro Arieta-Araunabeña** > Sociedad Polideportiva Erandio elkarteko presidentea

“Xakeak gazteen kohesio-sozialean eta integrazioan lagun dezake; joko liluragarria da”

**Abenduaren 22tik 30era egingo dute Nazioarteko XXI. Xake Txapelketa Irekia Astrabuduko kultur etxean. Sociedad Polideportiva Erandio elkarteak antolatzen du eta bere presidente Pedro Arieta-Araunabeñagaz berba egin dugu.**

—Herrian ondo errotutako xake-txapelketa egingo duzue asteotan.

—Ondo errotuta dago, baina ez dagokio Erandiori bakarrik, toki askotatik datoz eta jokalariek: Bizkaitik, Gipuzkoatik, Santanderretik, baita urrunagotik ere. Nazioarte mailakoa da, baina erritmo berean jokatzen den txapelketa gitxi dago Euskadin eta nahiko ondo hartzen dute. Normalean bederatzi txanda jokatzen dira, baina aurten zortzi izango dira; denora 80 jokalaririk inguru batu ohi da. Txapelketa libre da, baina xakean hainbat maila dago jokalarien artean: maisuez gain, lehenengoak, bigarrenak eta hirugarrenak. Sari orokorra eta mailak ematen ditugu, baita bestelako sariak ere: betanoei, e.a.

—Zein asmo daukazue ekimenagaz?

—Asmoa da xakea bultzatzea eta umeek kirol hau ikastea. Europako Legebiltzarak ebazpena onartu du xakea eskoletan irakasteko. Asko ematen die kirol honek



Info+: [www.sperandio.info](http://www.sperandio.info)

gazteei: kohesio-soziala hobe dezake eta arazoak dituzten gazteen eta etorkinen integrazioan lagun dezake, xakean bazterketarik ez dagoelako. Eta sustatzen du sorkuntza, sena eta memoria: buruz buruko jokoa da eta erabakiak hartu behar dira bat-batean. Baloreok eragiten dute jokalarien artean motibazioa eta kiroltasuna sortzea. Joko liluragarria da. Umeei ere ematen dizkiegu eskolak eta lehenengoz egingo dugu txapelketa abenduaren 24an; ea zelan doan...

—Zer esango zenieke oraindino xakea kirola ez dela diotenei?

—Onartuta dago kirol moduan, Europako ebazpena ikusi bestela: talde sozial denei irekita dagoela dio eta eskolara eroan gura duela, gazteei dakartzkien onurak direla-eta. Gainera, kirol gogorra da eta prestatu beharra dago: kontzentrazio handia eskatzen du eta higadura fisikoa eragiten du; eserita praktikatzen da eta jokatzen ez duenak agian ez du ikusten, baina badauka bere mamia. ○

## Gabonak jolasean igaroko dituzte umeek, jarduerak izango dira-eta Erandiogoikoan, Alzagan eta Astrabuduan



Info+: [www.erandio.net](http://www.erandio.net) guneko agendan

**Auzoz auzo,** hamaika jarduera prestatu dute umeentzat Gabonetarako: abenduaren 22 eta 23an Erandiogoikoako kultur etxean, 26tik 29ra Alzagan eta urtarrilaren 2tik 5era Astrabuduan.

Erandiogoikoan Kitilin eta Kattalin pailazoen ikuskizuna izango da abenduaren 22an, 19:30ean. Biharamunean, barriz, *Latxa* zirko-ikuskizuna eskainiko du Keima taldeak, 20:00etan. Gainera, bestelako jarduerak ere izango dira jolas-parkean: tailerrak, irudi eta soinu estudioa, ohe elastikoak, ludoteka, mahai-futbola eta tenisa, hockeya, e.a.

Alzagan ere prestatu dute hainbat

gauza. Jolas-parkea kiroldegian kokatuko da eta sarrera doakoa izango da; orduetgia ondokoa: 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.

Ikuskizunak, barriz, azoka zaharrean egingo dituzte: abenduaren 26an, *Verbena Pottoka* haur-antzerkia; 27an, *Patas arribera* zirko-ikuskizuna; 28an, *Harritsu Maritxu, denboraren makinaren abentura* antzerkia (Ane Monna, Oskola eta Karamarro taldea); eta 29an, *Zoozoom* antzezlan (Markeliñe taldea). Sarrerak euro 2 balio du.

Astrabuduan jolas-parkea kiroldegian ipiniko dute, eta ikuskizunak Josu Murueta Kultur Etxean egingo dituzte, esan bezala, urtarrilaren 2tik 5era. ○

### OLENTZERO AUZOZ AUZO IBILIKO DA

Ondo etorria egingo zaie Olentzerori eta Mari Domingiri abenduaren 23an eta 24an auzo guztietan. Erandiogoikoan 23an egingo dute kalejira, kantu-kantari, 18:30etik aurrera. Astrabuduan eta Alzagan, barriz, abenduaren 24an kantatuko diete. Astrabuduan, umeentzako jarduerak izango dira goizean Josu Murueta plazan eta, 18:00etan, kalejira egingo dute ikastetxetik Mendiguren plazara. Alzagan, ostera, kalejira bi izango dira: Uztargi taldearena 17:30ean urteko da Bekoa ikastetxetik eta azoka zaharrena; eta Gautxoriak, Alzagako Guraso Elkarte eta Gazte Asanbladarena, 18:00etan hasiko da Irailaren 23a plazan, leku berean amaitzeko 20:00etan, antzezpen batez.

### ORDUTEGI BEREZIA KIROLDEGIETAN

Gabonetan ordutegi berezia izango dute kiroldegiek: abenduaren 24an eta 31n, 09:00etatik 13:00etara zabalduko dituzte; abenduaren 25ean, eta urtarrilaren 1ean eta 6an, itxita egingo dira; abenduaren 26tik 28ra eta urtarrilaren 2tik 4ra, 08:00etatik 22:00etara zabalduko dituzte; abenduaren 29an eta urtarrilaren 5ean, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; eta, azkenik, abenduaren 30ean, 09:00etatik 14:00etara zabalduko dituzte. Egutegia Udalararen webgunean ere ikusgai daukazu: [www.erandio.net](http://www.erandio.net).

### EDUKIONTZIA MATERIA ORGANIKOA JASOTZEKO

Bosgarren edukiontzia ipiniko dute Erandion, etxeetako hondakinaren materia organikoa jasotzeko, Bizkaiko Aldundiko Ingurugiro sailak diru-laguntza emon dio eta Udalarari. 2013ko lehen hiruhilekoan abiatu gura dute ekimena. Edukiontzian jasoko dira barazkiak, frutak, zerealak eta haziak. Hondar horiek konposta egiteko erabiliko dira.

Info+: [www.erandio.net](http://www.erandio.net)



Luberr Basolanak, SL  
Axpe ibaiertza 28A  
beheko solairua B12 lokala  
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38  
Tf.: 94 467 17 13  
Faxa: 94 467 42 41  
[luberr@euskalnet.net](mailto:luberr@euskalnet.net)  
[www.luberr.biz](http://www.luberr.biz)

#### - Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarrizko lanak eta ereite lanak.

#### - Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarrizko, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

#### - Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

#### - Barrukaldeak lorategi bihurtzea



## adi lagun!

Plaza atalean zure iritzia\* irakurri gura dugu; bidal egiguzu!

[uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)

\*(sinatuta eta gehienez 330 berba)



## WEB ORRI BARRIA PARTE HARTZEA SUSTATZEKO

Auzokideen parte-hartzea sustatzeko asmoz, web orri barria abian jarri du Sopelako Udalak: [partehartzea.sopelaudala.org](http://partehartzea.sopelaudala.org). Bertan, sopeloztarrek euren iritzia botatzeko aukera izango dute: eztabaida-foroen bidez, blog berezien bidez, inkesten bidez e.a. Gainera, udal-bilkura, aurrekontu partehartzaile eta auzo-bileren inguruko informazioa eskainiko du.

## OLENTZEROREN KALEJIRA ETA ERREGE-KABALGATA

Gabonakaz lotutako hamaika jarduerak izango ditugu eskura hurrengo egunetan. Abenduaren 24an, berbarako, Olentzero eta Mari Domingiren Gaua ospatuko da 17:00etatik aurrera, eta kalejira egingo dute Larrabasterratik udaletxe plazaraino. Bertan, antzerkia egin eta gaztaina bero-beroak banatuko dira. Abenduaren 26tik 30era arte, Gabonetako Jolas-Parkea izango da Urko kiroldegian: puzgarriak, jolasak eta beste hainbat jolas egongo dira egunero, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Urtarrilaren 1ean, barriz, Urte Barri Eguna ospatuko dute urtero legez, Kurtzio Kultur Etxean. Bertan, Kalika Antzerki Taldearen ikuskizunaz gozatu ahal izango dugu, 13:00etatik aurrera. Sarrera, debalde. Azkenik, urtarrilaren 5ean, Errege-kabalgataren txanda helduko da, 18:00etan Larrabasterratik udaletxe plazaraino.

## ANTZERKIA ETA ZINEMA URTARRIL HASIERAN

Sopelan antzerki eta zinemagaz emango diote ondo etorria urte barriari. Hilaren 10ean 18:00etan *Orgullo y prejuicio* pelikula eskainiko dute, urtarrilaren 13an 18:00etan *Anbotoko Mari* antzezlan, hilaren 19an 20:00etan *Babia* antzezlan, urtarrilaren 20an 18:00etan *Ice Age 4* pelikula eta 24an 18:00etan *Siete mesas de billar frances* filma, denak Kurtzio Kultur Etxean.

## Elkartasuna Saharagaz Errefuxiatu kanpamenduetan Nagusientzako Eguneko Zentroa zabaldu barri du Udalak



Udal-ordezkaritza izan da abendu hasieran errefuxiatu kanpamenduetan

**Saharar** errefuxiatu-kanpamenduetan Nagusientzako Eguneko Zentro bat zabaldu barri du Sopelako Udalak, Dora izeneko dairan (herrian), hain zuzen ere. Abendu hasieran Alain Goldaraz eta Sonia Huidobro Udal Gobernu zinegotziak bertan izan zen lokalaren inaugurazioa egiteko.

Eraikin honen helburu nagusia bertako nagusiek batzeko leku bat izatea da. Lokal horretan, nagusien elikadura eta osasun baldintzak ere aztertuko dira. Udal ordezkariek nabarmendu dutenez, Eguneko Zentroak, gainera, "saharar he-

rriaren historia babesten" lagunduko du, "nagusiak baitira Saharako altxor nagusia, eurek gerra eta erbestea bizi izan dutelako". Era berean, Udalak kanpamenduetan jasotako "berotasuna" eskertu gura izan du, eta herri bien arteko antzekotasunak azpimarratu dituzte: "herri aske eta burujabea gura dugu Saharan eta Euskal Herrian".

Proiektu honen lehenengo urratsak 2009. urtean eman ziren. 2011. urteko abenduan, Udalak hitzarmena sinatu eta 18.000 euroko finantziakzioa bideratu zuen eraikina egiteko. ○

**Iker Gordon Isasi** > One Wall-eko Munduko txapeliduna

"Euskal Selektzioan harreman oso estua izan dugu... eta gainera irabazi!"



Sopeloztarrek bost txapel lortu ditu daborduko trinketean

**Irlandan** egin barri da One Wall pilota modalitateko Munduko Txapelketa, eta Iker Gordon 22 urteko pilotari sopeloztarra izan da aurtengo txapeliduna, Euskal Selektzioaren izenean. Kurene taldeko pilotariak hainbat txapela lortu ditu trinketean baita frontoian ere.

—Zorionak, Iker! Espero zenuen txapela lortzea?

—Egia esan, ez. Asmo horregaz joan ginen, baina ez duzu pentsetan irabaziko duzula. Poz handia hartu dugu, esperientzia oso ona izan baita. Euskal selektzioagaz joan gara eta denon artean harreman oso estua izan dugu, eta gainera irabazi!

—Eta zertan datza One Wall pilota modalitatea?

—Frontenis-eko pilota baten antza duen pilota bat erabiltzen da, pareta baten aurka jokatzen da eta lauki baten moduan sartuta jokatzen duzu.

—Gurean ez da oso ohikoa modalitate hori, ezta? Ezustekoa izango zen Euskal

Selektzioak irabaztea!

—Ez da batere ohikoa. Guk urtean behin egiten dugu Euskadiko One Wall txapelketa, eta irabazten duena Nazioarteko txapelketara joaten da Euskal Selektzioaren izenean. Aurten nik irabazi neban eta horregatik joan naiz Munduko Txapelketara. Batez ere AEBn jokatzen da, Puerto Ricon e.a.

—Zure burua ikusten duzu modalitate honetan jokatzen?

—Ez, nik batez ere trinketean eta fron-

**«Ea orain nagusiakaz trinkete txapelketa irabazterik dudan!»**

toian jokatzen dut, eta One Wall-ekoa Euskadin urtean behin egiten den txapelketa baino ez da. Orain trinketeagaz jarraituko dut, urte osoko txapelketa delako. Azken bost urteetan irabazi dugu trinkete ground-a, urte bi gaztetoetan eta hiru urte 22 urteko azpikoetan. Ea orain nagusiakaz lortzerik dudan! ○

## EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,  
etxera eroango dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78  
Tf. 94 491 27 34

## DIDAK HAMILTON

### IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
  - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
  - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.  
Tf. 94 676 30 12  
[info@didakhamilton.com](mailto:info@didakhamilton.com)

## ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA  
Tf. 94 676 02 66  
Email.: [sopela@ikastola.net](mailto:sopela@ikastola.net)

## OINUTSIK

### KONTSULTA PODOLOGIKOA

Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4  
48600 Sopelana  
Tf. 94 404 74 20  
CITA PREVIA  
[oinutsik@euskaltel.net](mailto:oinutsik@euskaltel.net)



OINAK DITUZU  
ONGIZATEAREN  
ZUTABE, OINEZ  
EDONORA HEL  
ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.



## ZERGAK %2,5 IGOTZEA ONARTU DU UDALBATZAK

Hurrengo urtean Berangoko zergek %2,5eko gorakada izango dute. Hala onartu zuen udalbatzak EAJ eta PSE-EEren aldeko botoakaz. Bildu eta PP abstenitu egin ziren, eta Ezker Anitzak kontra bozkatu zuen. Horretaz gain, zergak ordaintzeko zailtasunak dituzten familientzat diru-laguntzak eskaintzeko aukera aztertzea onartu zuten alderdi guztiek ahobatez.

## UDALAK SEI LURSAIL SALDUKO DITU SANTA ANAKO EREMUAN

Berangoko Udalak Santa Ana auzoan zegozkion sei lursail salduko ditu, udalbatzak erabaki hori hartu ostean. Salmenta enkante bidez egingo da, eta lortutako dirua inbertsioetarako bideratu gura du Udalak. EAJ, PP eta PSE-EE salmentaren alde agertu ziren, eta Bildu eta Ezker Anitza kontra, lortutako dirua etxebizitza sozialak erosteko erabili behar dela argudiatu zuten.

## GOSPEL EMANALDIA URTARRILAREN 4AN

Gospel musika gustuko baduzu, ezin duzu galdu Santa Ana antzokian urtarrilaren 4an izango den kontzertua. VII. Gospel zikloaren barruan, The Upper Room taldeak kontzertua eskainiko du, 19:00etan, euro baten truke. Ahotsa eta pianoa dira talde estatubatuar honen protagonista nagusiak.

**berezi**

Hanburgesak Ogitartekoak  
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 • BERANGO  
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

## Aspertzetik ez Gabonetan! Olentzeroren kalejiraz gainera, egitarau potoloa prestatu dute urtarrilaren 5era arte



Ali Baba eta 40 lapurrak antzezlanaren abenduaren 23an izango da

**Hamaika** ekimen prestatu ditu Kultur Etxeak Gabonetarako, batez ere haurrei begira. Abenduaren 23an izango da lehenengo ikuskizuna, *Ali Baba eta 40 lapurrak* antzezlanagaz. 19:00etan hasiko da, Santa Ana antzokian.

Hurrengo egunean, ohiturari eutsiz, Olentzeroren kalejira 18:30ean hasiko da Berangoetatik frontoiraino. Bertan harrera egingo da eta txikienek ikazkinagaz berba egiteko aukera izango dute. Hilaren 26an Tor Mago ezagunaren emanaldia izango da Santa Ana antzokian, 18:00etan debalde. Abenduaren

27an eta 28an, barriz, haur-parkea izango da frontoian, ludoteka, puzgarri eta bestelako jostailuakaz. 29an, Kixka taldeak lekukoa hartu eta haurrentzako txotxongilo emanaldia eskainiko du antzokian 19:00etan. Ostera, pailazoak gogoko dituztenek, Patxin eta Potxinegaz gozatzeko aukera izango dute hilaren 30ean 18:00etan, eta urtarrilaren 2an arrastiko 18:00etan, Klun 4x4 pailazoakaz, antzokian.

Urtarrilaren 5ean, errege kabalgata hasiko da 19:30ean eta amaitzeko, DJ Xaiborregaz disko-festa frontoian. ○

**Plentzia Telebista** > 25 urtez plentziarrenak argitan emoten

“Egun, herri-telebista batek 25 urte betetzeak meritu handia dauka”



Interneten ere ikusgai daude bideoak, web-orri honetan: [www.plentziatelebista.com](http://www.plentziatelebista.com)

**Urte laurdena** bete du Plentzia Telebistak; urte horietan kontu eta aurpegi ugari plentziarren etxeko telebistako protagonista bihurtu dira sarri. Gu telebista zoriondu guran, Nerea Ibaguren-goitia, Amaia Isasi eta Amaia Ibaguren-goitiagaz berbetan egon gara.

—**Zer balorazio?**  
—Gorabeheraz betetako ibilbidea izan da. Hasieran, boluntarioek baino ez zuten lan egiten; lagun-taldea batu, eta ezer kobratu barik programak-eta egiten zituzten. Horien artean, Juanan Aranburu hasierako sortzaileetakoa izan zen, eta berari beste askori bezala, asko zor diogu. Orain 6 urte, barriz, erabaki zen kazetariak kontratatzea, telebistari jarraitkortasuna eman ahal izateko. Halere, arazoak arazo, 25 urte ostean lanean dihardugu, eta gaur egun, garai latzetan egon arren, lanean jarraitzeak sekulako meritua dauka.

—**Zein izan da helburu nagusia?**  
—Telebistaren helburu nagusia herria sortzea izan da, herriari zerbitzu bat eskaintzea. Horrela, Plentzian dauden elkarten eta herritarren artean harremana sustatzea helburu nagusi izan dugu;

### «Plentzia Telebistak herria sortzea asmo nagusi izan du»

horrez gainera, herritarrek inguruan gertatzen denaren berri izatea gura dugu. Hori guztia herritarren auzolan eta laguntzari esker izan da posible.  
—**Hemendik aurrera, zer?**  
Oro har, komunikabide txiki guztiok egoera latza bizi dugu gaur egun; hortaz, aurrerantzean aurrera jarraitzea da gure asmo nagusia; baldintzak hobetzea.  
—**Nola ospatuko duzue urtemuga?**  
—Bideo bat egiten ari gara hemendik pasa den jende guztia omentzeko. ○

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27. behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

**COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.**

**Harritzeko moduko kalitatea!**

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrial
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elkagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)  
Tf. 94 470 06 69 e-posta: [bilbao@limpiezasvillar.com](mailto:bilbao@limpiezasvillar.com)

**Garaizar barrikuntzak**

- igeltsaritza orokorrean
- lokalak eta etxebizitzak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977-6 • [regaraizar@euskalnet.net](mailto:regaraizar@euskalnet.net)  
[www.garaizar.biz](http://www.garaizar.biz)  
Illeta kalea 1 • ALGORTA

**zaindu**  
Esku Terapia Zentrua  
Osteopatia - fisioterapia

**Ane Nafarrate Martin**  
Doctor landa 4, Sopela  
Telf.: 946026779

**AIXERROTA BHI**

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / TF. 94 491 17 86



## AURTEN ERE, BALKOI ARGIENEN LEHIAKETA GORLIZEN

Gabonak heltzeagaz batera, Gorlizen lehiaketa barria martxan jarriko da; horretan balkoi argitsuenak izango dira protagonista nagusiak; izan ere, Gorlizeko auzokideek balkoiak argizatzearen sari handia eroan ahalko dute; lehenengo sailkatuak 200 euro, bigarrenak 100 euro, eta hirugarrenak 50 euro irabazi ahalko du. Horrela, parte hartzaileek balkoiek argia abenduaren 22tik urtarrilaren 6ra arte izan beharko dute, arrastiko 19:00etatik 23:00etara. Hala, Udalaren helburua herria gabon-giroz janztea izango da, auzokideen parte-hartzeagaz.

## PLENTZIAN, URTARRILETIK AURRERA INGELES IKASGAI

Ingelesa pendiente daukazin irakasgaia izanez gero, aukera izango duzu urtarriletik aurrera Plentzian ingelesa ikasteari ekiteko. Ikastaroa goizez egingo da martitzen ala eguenetan 10:00etatik 12:00etara Goñi Portalen. Ikastaroa heldu zein gazteei zuzenduta dago; ohi legez, kasu honetan ere, plentziarrek lehentasuna izango dute. Horrela, gutxieneko ikasle-taldea lortuz gero, ikastaroa urtarrilaren 8an hasiko da, akabua, barriz, ekainaren 18an izango da. Horrenbestez, anima zaitetz, eta izena eman Goñi Portalen!

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf. 94 460 90 31  
48990 ALGORTA

## Mankomunitatea

Gabonetan murgildurik **ekimen andana** egongo da **Uribe Kostan**



Gabonetan kaleko giroa bizi-bizia izango da

**Daborduko** Gabonetan murgildurik gaude, eta urtero legez, garai hauetan, etxeko txikienek protagonismo handiena hartzen dute; oporretan egoteaz gainera, eurak izaten baitira ilusio handienagaz garai hauek bizi dituztenak. Hori dela eta, eurentzako ekimen ugari antolatzen dira, Gabonak ederto batean pasa ditzaten.

Ale honetako beste atal batzuetan ikusi ahal izan duzunez, egitarau oporagaz datozkigu, Barrika, Plentzia eta Gorlizeko eskaintzak ere ez dira makalak. Horrenbestez, adi bada, Gabon hauetarako dakarzkiguten proposamei. Barrikan, berbarako, haurrentzako Gabon-egitaraua osatu dute; hala, 23an, Olentzero jaitsiera izango da 17:30ean Barrikako hondartzako aparkalekutik Frontoiraino, ondoren, 18:30ean Olentzero eta Mari Domingiri harrera egingo diete. Hurrengo egunetan, barriz, 26 eta 27an, antzerki-tailerra izango da

arrastiko 18:00etan Udal Liburutegian. Urtarrilaren 2an, ostera, Gabonetako ipuin-kontalaria egongo da liburutegian, ordu berean 18:00etan alegia. Azkenik, zine-emanaldiak ere izango dira hilaren 28an eta urtarrilaren 4an arrastiko 18:00etan liburutegian.

«**Barrikan 23an;  
Plentzian eta Gorlizen,  
barriz, 24an izango da  
Olentzeroren ohiko kalejira**»

Plentzian 24an 18:30ean plazaxotik abiatuta Olentzero kalejira egongo da dantzan eta giro ederragaz; ostean, Olentzeroren antzezpena 19:30ean. Gorlizen ere badugu eskaintza zabala; 24an Olentzeroren kalejira 18:00etan Eliza plaza-tik abiatuko da; hurrengo egunetan, ostera, 26, 27 eta 28an gaztetxoek ludotekan gabonetako marrazkiak egiteko beta izango dute. Horratx, Gabonetako egitaraua, prest zagoz? o

# Abe. 21 - Urt. 24

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tf. 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### GETXO

► **Bosteko.** Abenduaren 30 arte. Algortako Torre aretoan.  
► **Beldur (Laurita Siles).** Urtarrilaren 4 arte. Algortako kultur etxean.

### LEIOA

► **Gorakada antzerki-taldea.** Urtarrilaren 27 arte. Kultur Leioan.  
► **Sahara, argazki-erakusketa.** Urtarrilaren 7 arte. Gaztegunean.

## ANTZERKIA

### BERANGO

► **Tor magoa.** Abenduak 26, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.  
► **Txotxongiloak.** Abenduak 29, 19:00etan. Berango Antzokian. Doan.  
► **Potxin eta Patxin pailazoak.** Abenduak 30, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.

### GETXO

► **Ahatetxo itsusia.** Urtarrilak 27, 18:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 4 euro.

### SOPELA

► **Txirri, Mirri eta Txiribiton.** Urtarrilak 3, 16:30 eta 18:30ean. Kurtzio Kultur Etxean. 5 eta 7 euro.  
► **Anbotoko Mari.** Urtarrilak 13, 18:00etan. Kurtzion. 3 eta 5 euro.

## ZINEMA

### BARRIKA

► **Rio.** Abenduak 28, 18:00etan. Ander Deuna kultur aretoan.  
► **Madagascar 3.** Urtarrilak 4, 18:00etan. Ander Deuna kultur aretoan.



Info: [www.zinez.net](http://www.zinez.net)

### ► Zinema

## Barrura begiratzeko leihoak filma Sopelan

Abenduaren 27an ikusi ahalko dute sopoloztarrek *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentala, Meñakoz kultur elkarteak antolatuta. Kurtzio Kultur Etxean izango da emanaldia, 19:30ean. Euskal presoak ditu hizpide dokumentalak: bost presori buruzko film laburrak dira, elkarren independenteak, eta bost zinegilek sortu dituzte: Josu Martinez, Txaber Larreategi, Mireia Gabilondo, Enara Goikoetxea eta Eneko Olasagasti dira, eta euren lanetako protagonistak Irati Tobar, Gotzone Lopez de Luzuriaga, Jesus Mari Zalakain, Jon Ugarte eta Mikel Albisu *Mikel Antza*. Urrian estreinatu zuten dokumentala eta herriz herri erakusten ari dira orduak.

• **Non:** Kurtzio Kultur Etxean • **Noiz:** Abenduak 27, 19:30ean

### GETXO

► **Que dilema!** Abenduak 28, 21:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,90 euro.  
► **Piratas!** Abenduak 30, 17:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,10 euro.

### SOPELA

► **Orgullo y prejuicio.** Urtarrilak 10, 18:00etan. Kurtzion. Doan.  
► **Ice Age 4.** Urtarrilak 20, 18:00etan. Kurtzion. Doan.

► **Siete mesas de billar frances.** Urtarrilak 24, 18:00etan. Kurtzion. Doan.

### ERANDIO

► **Hotel Transilvania.** Urtarrilak 12, 17:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.  
► **Lo imposible.** Urtarrilak 12, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.  
► **Skyfall.** Urtarrilak 26, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

## MUSIKA

### LEIOA

► **Travellin' Brothers Big Band.** Abenduak 23, 20:00etan. Kultur Leioan. 10 euro.

### ERANDIO

► **Impromptu.** Urtarrilak 19, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

### BERANGO

► **Simon Otxandategi dantza taldea.** Abenduak 28, 20:30ean. Berango Antzokian. Doan.

### SOPELA

► **Jare.** Urtarrilak 25, 21:00etan. Kurtzio Kultur Etxean. 5 euro.  
► **Txanpa.** Abenduak 29, 20:00etan. Lurren kafe-tabernan. Doan.  
► **Triki-poteoa.** Urtarrilak 5, 20:00etan. Lurren kafe-tabernan.

## BESTEAK

### LEMOIZ

► **Tailerra: karakterizazio fantastikoa.** Abenduak 22, 17:00etan. Kultur etxean.

### PLENTZIA

► **Inauterietako mozorro-tailerra.** Urtarrilak 19, 17:00etatik 20:00etara. Goñi Portalen.

### GETXO

► **Hitzaldia: Euskal Herriko selekzioak orain (ESAIT).** Abenduak 27, 19:30ean. Abian elkartearen.

### GORLIZ

► **Urrien herri-jaiak.** Abenduak 29, 18:00etan. Ibarretan.  
► **Santiago 2013ko Pregolaria proposatzeko postontzia.** Abenduaren 31 arte. Kultur etxean.



ADITUAK GARA PINTXO ETA  
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA



[albuma]



## Zaldien indarra...

Zenbat zaldi, hainbat indar, handiagoa ala txikiagoa, dute autoek. Baina zergatik zenbatzen da indarra zalditan? Urdulizen badaukate erantzuna, zaldi-probak egin ohi dituzte-eta probalekuan, animalien indarra neurtu guran. Azken txapelketa abendu hasieran jokatu da, lau egunez: irudiok hilaren 10ekoak dira. Egun hartan lehiatu ziren Aresti (Gatika), Javier Peña (Guriezo), Erauzkin (Mañu) eta Xabier Landaluzeren (Atxuri) zaldiak.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**







## Denboraleari

aurre eginez, beste urtebete

Ekaitza, olatu handiak eta itsaso zakarra, hotza eta euria; denboralea izan genuen abendu hasieran, edo, hobeto esanda, denboraleagaz amaituko dugu urtea, beste urtebete. Izan ere, ekaitza aspaldi iritsi zen, orain dela bizpahiru urte, eta indartuz doa urtetik urtera, egunetik egunera: noiz etorriko ete da barealdia? Noiz etengo dira etxe-desjabetzeak? Noiz arte egongo dira langabetuak? Noiz amaituko dira desberdintasun sozialak? Noiz? Gehienek jokatuko dute loterian, eta tokatuz gero izango dute argi izpi lasaigarriren bat tarte batez. Baina zenbati tokatuko zaio? Bizibaldintza duinak loteria izan behar dira? Ez da, bada, guztion eskubidea? Ekaitzaren ondorik etorriko ei da barealdia, baina zelako hondamendia edo suntsiketa utzi ostean?



[berbetan]

Orain dela 10 urte Mungian bizi bada ere, beti Urdulizi lotuta jarraituko duela aitortu digu Akaitze Kamiruagak (Urduliz, 1970). Euskal Filologian lizentziaduna (Deustuko Unibertsitatea), Arabako eta Gipuzkoako toponimia lantzen ibili zen garai batean, eta Lauron irakasle ere bai. Azken 16 urteotan, Labayru Ikastegian dihardu beharrean, hainbat arlotan; azken aldian, Herri-ondarea ataleko arduradun. Beste batzukaz elkarlanean hainbat liburu plazaratu ditu: *Labayru Hiztegia, bizkaiera eta batua (b)uztartutik* (Labayru, BBK Fundazioa, Ibaizabal, 2003), *Antxinako Berriz. Bizimodua eta ohiturak* (2008), *Urte Sasoiak*, eta *Mungia, bizimodua eta ohiturak* e.a. Euskal Herriko ohituretan lan sakona egin du, eta gu jakin guran hurbildu gatzazkio.

# Akaitze Kamiruaga

## bizkaiera eta ohituren jasole / jagole

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zer lantzen du Labayruk? *Euskal Herriko Atlas Etnografikoa*-gaz zabilzate...

—Labayrun hainbat arlo lantzen dira. Alde batetik, Irakaskuntza arloa: euskaltegia dugu, bai euskalduntze bai alfabetatze arloakaz. Itzulpen Zerbitzua ere badugu. Hemen, Derion, berbarako: Euskal biblioteka, euskal gaien liburutegien artean, nik uste, Euskal Herriko garrantzitsuenetakoa dela. Hizkuntza arloa bere hemen dugu, horren barruan, argitalpen ugari kaleratu ditugu, adib.: Labayru Hiztegia. Labayru beti izan da bizkaieraren arautzean erreferenteetako bat...

—*Bizkaiera eta batua (b)uztartutik* hiztegia bere atera zenuten.

—Jende askok Labayru beti lotzen du bizkaieragaz, eta egia da, bizkaiera lantzen dugula, baina, ez dugu batuera baztertzen. Beti edo aspalditik, orain dela 30-40 urte eta luzaroan, Udako Euskal Ikastaroa antolatzen zen, eta horietan hasikera-hasikerako urtetatik Labayruko lema “Dakigunetik ez dakigunera” izaten zen; gu, gehienak bizkaitarrak garenez, bakotzak bere etxeko euskaratik abiatuta, gero, batuarako pauso edo zubi hori egin

behar dugula. Badakigu batuera guztiz beharrezkoa dela. Horregatik, hiztegieta eta planteatzen genuena bizkaiera eta batuera buztarturik zen, bizkaierak batuera-ri emon leion aportunaren aldetik. Bizkaierak asko dauka emoteko. Askotan, hiztegieta eta, bizkaierazko kutsua edo daukaten berbak baztertu egin dira. Baina, argi dago, hemen, asko egin daitekeela, kasurako: asteke egunak, hemen guztiok martitzena esaten badugu, zergatik hasi eskola danetan umeei asteartea bakarrik irakasten? Edo “san bariku!”,

**“Bizkaiera lantzen dugu, baina ez dugu batuera baztertzen; beharrezkoa da, baina euskalkiak baztertuta lotu dira”**

gure umei andereñoak beti halan esaten die, jai datorrelako... Ez dauka zentzurik umeak ostirala esaten hastea Urduliz baten! ‘Ostiral’ berba ezagutu behar dute, argi dago... Egia da, eredu bat behar izan zela eskola guztietarako, eta batua beharrezkoa zela, derrigorrezkoa, baina, gero, nik uste euskalkiak guztiz baztertuta lotu direla. Guk horien alde eginen dugu in-

dar; kontuan hartu behar da euskalkiek daukaten aberastasuna eta euskalki bakotzak batuerari egin leion ekarpena.

—*Etnografia alorrak zer jasotzen du?*

—*Euskal Herriko Atlas Etnografikoa* egiten da. Barandiaranek hasi zuen proiektua eta oraindik horretan jarraitzen dugu; bizimodu arrunta batzen da. Atlas bakotzak gai bat jorratzen du, orain artekoak, besteak beste: *Ritos de nacimiento y matrimonio*, beno euskaraz esango ditut, erderaz argitaratzen da eta... *Umeen jokoak, Elikadura, Abeltzaintza eta Artzaintza,*

*Bizitzako ohikuneak, Heriotzako ohikuneak, Herri-medikuntza* e.a. Barandiaranek bere egunean Atlas hori egiteko planteamendu osoa egin zuenean, atal nagusi batzuk aukeratu zituen, horietatik 7-8 argitaratuta daude, liburuki bakotxean bana. Gai bakotxa jorratzeko, galdetegi bat egin zuen, hori da gitxi gorabehera jendeari eginen zaiona. Kaleratu den azken liburu-





kian, *Etxea eta familia*, alde batetik, etxearen egitura bera aztertzen da, hormak, teilatua, zenbat gela, gorta, kamara, zelako materialak erabiltzen diren, zelako orientazioa daukaten eguzkiari begira e.a. Gero, gela bakotxa aztertzen da: sukaldean, beheko suak daukan garrantzia, tresnak, urik eta argirik ez zegoenean zer... Bestetik, familia: zelako harremana dagoen gurasoan, andra-gizon artean, norik egiten duen kultur transmisioa etxean, zelako lotura duen etxeak eleizagaz, etxe-babeserako ohiturak (oinaztua edo justuria denean kandela biztuten zela). Gai bakotxaren barruan azpiatal pilo dago, eta horietan beste mila. Horregatik, liburukiak, mar-dulak, oso pisutsuak dira! Bost kilo eta pikul! Euskal Herri osoa lantzen da, zapu probintzietako informazioa, bakotxetik 10-15 herritakoa, kostakoak, barrukoak, hiri nagusiak, txikiak e.a.

—**Uribe Kostakorik?**

—Bai, Atlaserako galdetegi batzuk Urdu-lizen egin ditut nik. Azken urteotan, egia esan, apur bat abandonatuta daukat... Danatarako denbora ez daukat...

—**Zoritzarrez, Atlasa gazteleraz dago...**

—Geure buruari askotan egin diogun galdera da. Galdetegiak herri euskaldunetan euskaraz egiten dira; Urdulizkoa euskaraz daukat jasota. Nahiz eta idazkera orokorra erdaraz den, terminologia, lexiko guztia euskaraz bere emoten da; lekuan lekuko izenak jasotzen dira, hau da, gaztelerako terminologia ezberdina, eta euskaraz bardin. Askotan lekukoaren esaldi osoak bere ipintzen dira. Baina, proiektua horrela hasi zen, orain osotasuna, jarraipena emotearren edo, erderaz jarraitzen du; baina, bai, askotan eztabaidatu dugun gaia da.

—**Lana amaitzean, euskaratu beharra...**

—Teknologiaren aurrerakuntzakaz, nire ustez, hemen erabakirik ez da hartu, baina, beste formatu batzuk bilatu beharko ditugu horrelako publikazioak egiteko; sarean eskegi, fitxa digital batzuen bidez, DVD formatuan e.a. Orri asko ditu, inpresinoan oso garestia da... Arloakaz jarrai-

tzeko, 1995ean edo, Herri-ondarea atala esaten dioguna sortu zen. Ordura arte, hizkuntza alde batetik lantzen zen, etnografia bestetik. Hori zelan eta hala buztartu beharra zegoen. Herri-ondarea jasotzen dugu, hori zer da? Herri-ondarea dana da. Ondare linguistikoa aztertzen da, grabazioak herri bakotxeko lekukoei egiten dizkiegulako eta euren euskara jasotzen dela-

## “Herri-ondarea atala sortu zenetik, hizkuntza eta etnografia buztarturik lantzen eta jasotzen dugu”

ko; baina bestetik ondare etnografikoa dago, esan dagigun, bizimodu tradizionala. Horretan sartzen dira dauden ogibideak (errementari, errotari, jostile, partera e.a. Askok galduta), edo bizimodu normaleko kontuak; zer jaten zen, zelako arropak erabiltzen zituzten (zein jai egunetarako eta zein aste egunetarako), Gabonetako erritoak e.a. Gero, herri-literaturagaz edo lotuta dagoen ondarea dago; kantak, erre-frauak, kontakizunak, esaera zaharrak e.a.

—**Horiek danak kontsulta daitezke...**

—Bai. Horregaz guztiagaz mota ezberdinetako lanak egiten ditugu; batzuk udalek eurek eskatuta, kasurako, lehenengoetako bat izan zen Getxoko Udalak eta Uribe Kostako Mankomunitateak eskatutakoa. Beste batzuk, geuk geutara egiten ditugu. Horietako grabazioen lagin batzuk sare-

## “Bizimoduan, danean, aldaketa handia egon da; eta azken hiru belaunaldion arteko transmisioan eten itzela”

ko Herri-ondarearen Katalogoa web orrialdetan eskegita daude; gainera, gaur egun, lekukoak grabatzeaz gainera mantentzen diren ohiturak eta erritoak bere jasotzen ahalegintzen gara, adib.: inauteriak, Markinako zaldi gaineko antzar-jokoa, Arratia edo gehiago Gernikako marijesiak (Olentzero baino, egiten ziren errondak) e.a. La-

bayru Ikastegiak 40 urte baino gehiago daroa ondarea batzen; udako ikastaroak egiten zirenean, horien arrimuan, Bizkai-ko herri askotan kantak eta kontuak, ipuinak batu ziren. Orain, ondare ez-materiala edo deritzo horri, nik gurago dut herri-ondarea deitzea. Ordutik dator hau dana, bilketa-lan handia egin zen. Pauso bi be-reizten ditugu: bata, informazioa batzea,

derrigorra da. Azken hamarkadan, transmisioan beherakada itzela egon da. Lehen etxean egiten zen berezko transmisioa, transmititzen ziren alde batetik, hizkuntza, bestetik, bizitzeko modua, sineskera batzuk, bizimodua ulertzeko modu bat... Hiru belaunaldiotan kristoren saltoa egon da. Lekuko moduan hautatzen ditugu, beharbada, pasa den mendean eguneroko bizimoduan egon den eboluzino, saltorik handiena ezagutu dutenak; etxean urik eta argirik eduki ez dutenak, ez telefonorik, ez biderik e.a. Gerra osteko urte gogorak bizi dituztenak, gosea... Gaur egun ere bizimodua aldatzen doa, argi dago bizimodua eten barik aldatzen doala; baina, aldaketa gehiago dator teknologia barrietatik, sare, facebook, twitter... Orain dana da birtuala. Baina, eguneroko bizimodua ez dut

*izaten gendun erre ez daitezzen...*”. Horiek dira aztertzen dugun lehenengo belaunaldikoak; horren danen ama-hizkuntza euskara. Ostera, bigarren belaunaldiak, horien seme-alabena, gehienek ez dute euskaraz ikasi. Getxon kasurako, edo Urdulizen bere bai, baina Getxokoa esanguratsua da, ulertu egiten dute, umetan egiten zuten etxean, baina gero galdu egin

## “Gaur dana da Olentzero! Globalizazioak ekarritako... Gurean ohikoagoak ziren Urtebarri-eguneko errondak eta”

dute. Hirugarren belaunaldiak euskaraz ikasi du, ikasketak bere, baina euren aiteitamamaren euskaratik salto itzela dago! Askotan alkar ulertu bere ez! Hor ikusten da transmisioan eten itzela egon dela! —**Ez hizkuntzan bakarrik, ohituretan ere.** —Danean! Uribe Kosta osoan “santageda” kantatzen urtetan diren umeek danek ber-tsino bera daukate! Eskualdean, guk batu-ta ditugu, lehen egiten ziren bertsoak, zelan egiten zitzaion koplak bat etxeko jaunari, beste bat etxeko andrari, etxeko neskatilari, seme zaharrenari e.a. Hori guztia galdu egin da; sasoiagaz lotuta, Gabonetako ohiturak... Inguru honetan askoz bere garrantzi handiagoa zeukaten Urtebarri-eguneko errondek edo Errege-egunekoek; gaur egun dana da Olentzero! Eta guk

hemen ez dugu ezagutu, beste probintzia batetik etorri den zera da; beste gauza asko moduan, horretan bere, globalizazioa dago. Horren kontra ezin dugu ezer egin, holan dator eta onartu egiten da.

—**Urte sasoiak lanean batu zenituzten ohitura asko; Gabonakaz lotutakoak gurean? Gabon-enborra edo sunbilarena....**

—Gabon-enborra edo mukurra... Hemen

ere batu dugu zer edo zer, baina azkeneko aztarnak; ohitura egon da Gabon-gauean argia gau osoan biztuta mantentzeko... Hori baino askoz bere zabalduago egon da ogi-salutadorearena: Gabon-gaueko afaria hasi aurretik etxeko nagusienak ogia hartu eta kuskurra kentzen zion, lehen ogiak biribilak izaten zirenez baztar bat, hori bedeinkatu eta mantelaren azpian gordetzen zen gau osoan, eta hurrengo urtera arte gorde. Hurrengo urtean, ogi zati hori, gure etxean kasurako, txakurrei emoten zitzaie, amorra ez zitezen; beste leku batzuetan, Bermeon esaterako itsasora bota, bare egon eta ekaitzik egon ez zedin, beste batzuek etxekoaren artean ardaoan bustita jaten zuten... Oraindino leku askotan egiten da, baina gero eta gutxiago. Gaboneta-

ko menua bere lehen oso finkatuta egoten zen, origo-aza, intxaur-saltsa, azalora edo karakolak e.a. Batzuk gaur egun ere mantentzen dira, kasurako, gure etxean karakol barik ez dago Gabonik! Baina origo-azak sano leku gitxitan...

—**Errondak zelakoak ziren?**

—Gabonak eta udako sanjuanak, solstizioak lotuta daudenez, beti izan dira erri-to asko egin diren sasoiak. Antzinatek datoren solstizioen garrantzia oraindino mantentzen dela ikusten da. Gabonak, edo negua, edo Santa Ageda, gazteenek beti aprobetxatu izan dute errondak egin eta eskean urteteko, sasoi horretan dagoelako kamara intxaurrez, sagarrez beteta, uzta batuta eta txarria hilda... Gure inguruan, behintzat, lehen, Urtebarri-eguneko erronda zen gehien egiten zena, umeen gauza izaten zen. Eta kanta: *“Urtebarri barri / txarri belarri / dekonak ez dekonari / nik ez dekot eta niri / ezpabere txarri belarri!”*. Orduko denboratan mandarinatxo bat, intxaurrak edo urretxak emoten zizkieten, noiz edo noiz txakur-txikerren bat, edo txakur-handiren bat... dirua, egia esan, ez zen ohikoena. Erregetan bere bardin antzera... Urtebarrikoa oraindino egiten da, baina daborduko oso motelduta dago. Mungian Gabonzahar-egunean gazteek okerkeriak eta egiten zituztela bere jaso dugu, baten batek batu bako tresnak herriko plaza erdira ataratzen zituzten, eta halakoak... ○

### Halloween edo... gurean ere bai?

—**Batu duzun bitxikeriarik?**

—Bat esatea ez da erraza... Leku eta herri askotan ibili gara eta eguneroko bizimodua oso antzekoa da guztietan. Batzuetan, industrializazioagaz eta, jende asko etorri zen kanpotik, nekazaritzagaz eta abeltzaintzagaz lotutako bizimodua apur bat arinago galdu da; osterantzean, herri txikietan eta, nahiko antzekoa da... Baina, akorduan daukat Berrizen batu nuen bat. Kanpotik datozen ohituren artean hor daukagu Halloween famosoa;

hori bere, urterik urtera, zabaltzen doala ikusten da; lehen kanpokoak izaten ziren, baina orain gure herrietako umeak bere ibiltzen dira mozorrotuta “truco o trato” esaten... Harritzeko modukoa zein arin egokitu den! Baina, kontua da, nik lehenengoz Berrizen batu nuenean, gero Mungian bere batu dut eta herri gehiagotan, Domu Santu buelta horretan, gazteek kalabazak hutsitu egin zituztela eta! Kalabazen denbora orain da udagoiena, negurako gorde... Hutsitu, ahoa eta

begiak egin eta barruan kandela sartuta sasi artean ipintzen zutela, jendea ikaratzeko... Hori entzun nuenean! Edo Berrizen kasuan kanpandorrea ipintzen zuten... Kontuan hartu orduan ez zela argirik egoten! Jendea ikaratzeko gazteen bromak edo izaten zen... Neuk uste nuen kalabazaren kontu hori kanpoko kulturetatik etorritako gauza zela... Baina hemen ere bazegoen, bere momentuan, hori egiteko ohitura; gure inguruan ez dot askorik jaso...





## Etorkizunari aurre

Fede Merino (Reinosa, Kantabria, 1943) argazkilariak *Getxo. 1973/1998 Eguneroko bizitzaren noblezia* liburua kaleratu barri du. Iraganaren lekukotza partekatu gura izan du aspaldi berangoztartutako argazkilariak obra honen bidez. Merinok eguneroko bizitzan erakutsi gura izan du jendartearen ikuspegi nobleena; kalean, eskolan, etxean, jolasean, jaietan, lanean, oinaze-minean; hau da, bizitzaren alde bizienak erakutsi gura izan dizkigu. Julio Caro Barojaren dizipulutzat du bere burua Merinok, eta horren haritik zera aitortzen du: ez duenak iragana ezta oraina ere ezagutzen ezingo diola etorkizunari aurre egin.

Argazkiak: **Fede Merino**  
[www.abfoto.org](http://www.abfoto.org)













**Maia egutegia** > munduaren akabua?

## Maia egutegia eta munduaren akabera: istorio eta literatura askorako amua

**Abenduaren 21ean mundua amaituko dela dio hainbatek, Maia zibilizazioaren egutegian oinarrituz. Baina kontrakorik ere esaten da; hau da, maiek iragartzen zutena ziklo aldaketa dela, ez besterik. Teoriak eta usteak hamaika izanda, zer gertatuko ete da Santo Tomas egunean?**

**Maia zibilizazioaren** sorrera k.a. 1500. urtean kokatzen da eta lurralde zabala hartzen zuen Erdialdeko Amerikan: Mexiko hegoaldea, Guatemala, Honduras, Belize eta El Salvador artean (325.000 kilometro koadro inguru).

Maiek kalkulu astronomiko oso zehatzak egin zituzten eta euren urteak 365 egun eta 25 ordu zituen: guk erabiltzen dugunaren oso antzekoa da. Agian horregatik bihurtu dira erreferente



Maia egutegia

euren egutegiak ere, teoria desberdinetarako oinarri izan direlarik. Duela gitxi arte, aurkitutako maien egutegietatik bat ere ez zen luzatzen 2012ko abenduaren

21tik harago. Ondorioz, teoria askok diote mundua amaituko dela egun horretan bertan. Egia ete? Azken aurkikuntzek bestelakorik diote.

**“Maien urteak 365 egun eta 25 ordu zituen, guk erabiltzen dugunaren antzeko”**

### Xultun hiriko egutegia

Zoritzarreko teoria horiek hankazgora ipini ditu, ordea, Guatemalako Xultun hiri zaharrean 2010ean topatutako egutegiak. *Science* aldizkariak 2012ko maiatzean argitaratu zuenez, AEB-ko Bostongo unibertsitateko ikerlariak piktograma batzuk aurkitu zituzten eraikin bateko gelan, paretetan margotua. Uste



Maien Tikal hiri ohia (Guatemala)

dute eskribau baten tailerra zela, eta duela gitxi arte ez dute jakin beren-beregi zer ziren aipatu piktogramak.

Ikerlariak azaldu zuten, gainera, gaur arte ezagutzen den maia egutegirik zaharrena da, IX. mendekoa. Eurek ere sorpresa hartu ei zuten jakitean Ilargia, Venus, Eguzkia eta Marteren zikloak

zirela piktogrametan azaldutakoak eta, gainera, astronomia-objektuok hurrengo 7.000 urteetan biziko zituzten faseak iragartzen zituztela. Beraz, egutegi horren arabera, munduaren akabera 2012tik oso urrun dago oraindino. Areago, astronomo batzuek diotenez, maiek ez zioten ipintzen azken datarik egutegiei.

Mundua aurten amaitu edo ez, argi dago askorako emon duela gaiak azken aldian, baita gurean ere.

Esaterako, Getxon Maia Egutegia deritzon egitasmoa garatu dute Immigrazio eta Euskara Zerbitzuek, eta zentzu barrizalea emon diete teoriari. 2012a zerbaiten akabu gisa ulertu beharrean, aroaren aldaketa moduan kokatu dute zoriareko data: giza-baloreak berreskuratzeko aro gisa ulertu dute 2013an datorrena, eta integrazioa eta kulturartekotasuna lantzeko baliatu dute maia egutegiaren ideia.

**“Egutegirik zaharrena, IX. mendekoa, orduetik beste 7.000 urte luzatzen da”**

Badirudi bizitza kalitatea hobetzeko baino, mundua amaitzeko desiratzen gaudela, Nostradamusen antzeko teoriari jarraituz. Zer gertatuko den ez dakigu, baina guk, badaezpada, jai egingo dugu Santo Tomas egunean. Zehazteke dago zertarako, munduaren akabera edo berpizkundea ospatzeko, baina hori egunean bertan ikusiko dugu; edo ez? ○

**Gerardo Gomez Crespo** > Getxoko ‘Maia egutegia’ egitasmoa

**“Askok dio oraingoa aro aldaketa dela, eta aro barria oinarrituko dela giza-baloreen berreskuratzean”**

**Getxoko** ‘Maia egutegia’ egitasmoa garatu dute Udaleko Immigrazio eta Euskara Zerbitzuek, Varietes enpresaren bitartez. Bertako proiektuen zuzendari dugu Gerardo Gomez Crespo.

—Zergatik aukeratu zenuten maia egutegiaren gaia eta zelako egitasmoa garatu duzue urte honetan?

—Gero eta etorkin gehiago dago herrian, eta Udalak ez zekien zelatan integratu pertsona horiek herriko egunerokotasu-

nean eta bertako kulturaren. Munduaren akabuaren aitzakia hartu genuen, askok diotelako ez dela horrela izango, aro aldaketa bat baizik. Gainera, aro barria giza-baloreen berreskuratzean oinarrituko dela uste dute: elkartasuna, komunikazioa, parte-hartzea, e.a. Euskal mundua eta etorkinena uztartzeko aukera paregabea ikusi genuen. Ideien hiru lehiaketa egin ditugu, bultzatu beharreko baloreak lotuta, eta irabazi duten hiru

egitasmoak garatu ditugu.

—Zeintzuk izan dira?

—Bai. Lehenengoagaz, bizikidetzaren indartzea gura genuen, eta mitoetan eta kondairetan oinarritutako proiektu baten irabazi zuen: munduko eta euskal kondairak uztartu ziren, hausnarketarako gunean eskaini, eta mendi-urteera batez amaitu; Anbotora joan ginen, Mariren kondaira dela-eta. Bigarren proiektuagaz, komunikazioa landu ge-

nuen: hitzik gabeko komunikazioari buruzko tailerrak izan ziren, munduko eta euskal kulturak buztartu, eta Getxoko Antzerki Jardunaldiakaz lotu. Hirugarren fasea oraindino garatzeke dago, baina proiektua aukeratu da: kulturarteko gidariak. Etorkinak lagunduko dituzte herrian egiten diren euskal kultur ekimenetara, eta azalduko diete zer diren eta zertan datzan. Data hauetan ekitaldi asko dagoenez eta elkarri trabarik ez egiteko, urtarilean hasiko da garatzen proiektua. Orain giden taldea osatzen ari da eta, seguruenez, datorren urteko lehen hiru hilekoan garatuko da. Dena dela, abenduaren 21eko arrastian jai egingo dugu Algortan, zertarako eta egitasmoaren aka-

buia eta giza-baloreen aro barri hori hasiko dela ospatzeko.

—Zer balorazio egiten duzue egitasmoa amaitzean dagoen honetan?

—Egitasmo gogorra izan da, batzuetan frustragarria ere bai: zaila da lotzea immigrazioa eta euskal kultura, batzuetan ematen duelako helburu kontrajarriak dituztela. Batetik, integrazioa lantzen da beste kulturak txertatuz eta, bestetik, euskal kulturaren jatorria berreskuratzeko lan egiten da. Baina, zoriarekin, ideia oso onak izan dituzte elkarrekin eta, kulturaren sustarrietara joz, lotura hori egitea lortu dute eta emaitza oso positiboa izan da. Lehenengo urratsa da eta egiteko asko dago, baina gustura lotu gara egindakoagaz. ○







**BETIKO**  
IKASTOLA

*Kalitatezko irakaskuntza euskalduna*

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez  
Tlf: 94 464 23 64  
94 464 33 07  
Fax: 94 464 22 05  
Helbidea: Artatza auzoa 84  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

**GARRK?**



GIZONENTZAKO  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

## Lekeitioko onenak

### Euskal Zinema eta Bideo Bileran

aurten 30 lan lehiatu dira



Info+: [www.zinebilera.com](http://www.zinebilera.com)

**Urtero legez**, eta daborduko 35. ekitaldia izan da, euskara hutsean egiten den zinemaldi bakarrak lan profesional zein amateurak, film luzeak, laburrak, dokumentalak, sormenezkoak eta argumentuzkoak eskaini ditu, azaroaren 27tik abenduaren 1era. Aurton 32 lan eskaini dituzte Ikusgarri aretoan, 30 lehiaketakoak izan dira, eta beste biak lehiaketaz kanpokoak.

Jokin Oregi, Kepa Arruza, Zuhar Iruretagoiena eta Mario Ortizek osotutako epaimahaiaren erabakiaren arabera, arlo bakoitzeko maila bietan, amateurretan eta profesionaletan, lehenengo eta bigarren sariak banatu dituzte. Sail

bakoitzeko eta maila bakoitzeko lehenengo postuetan lotu direnak hurrengo hauek: Dokumental sailean, *Cross Culture Surf, Part 1, Lanhinch* (Pello Salaberria; amateurra) eta *Gure arbasoen ogibidea* (Carlos Iglesias; profesionala); Argumentuzkoen sailean *The Zealota* (Iruñe Gurtubai; amateurra) eta *Lagun mina* (Jose Mari Goenaga, profesiona-

#### «David Bernuesen Desentxufatuak lanak jaso du Zilarrezko Antzara»

la); Sormenezkoen sailean *Gozo eta Hits* (Mentxu Sesar Iglesias, amateurra) eta *Desentxufatuak* (David Bernues; profesionala). Hain zuzen ere, azken hori izan da epaimahaiarentzat Bileraren sari nagusia merezi izan duena, hau da, David Bernuesen *Desentxufatuak* jaso du Zilarrezko Antzara nagusia. (Bronzezko Antzarak, bigarren saridunak ezagutzeko web gunera jo dezakezu). Bestalde, epaimahaiak aipamen berezia egin zion, "bere originaltasunagatik", Telmo Esnalen *Hamaiketako* lanari.

Horrez gainera, bigarren, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak, Benito Ansola (beka-)Saria banatu zuten. Maria Elorzak, Maider Fernandezek eta Aitor Gametxoren *Irudi mintzatuen biztegi poetikoa* proiektuak jaso du. ○

## Libre eta ozen

Jare taldeak kontzertua eskainiko du Sopelan urtarrilaren 25ean



Taldeakide sopolaztarrak dituen taldeak Kurtzio kultur etxean emongo du kontzertua

**Kurtzio** kultur etxean, urtarrilaren 25ean (21:00; sarrera 5 euro) eskainiko du zuzeneko Jare taldeak.

Mikel eta Gorka Bizar anaiek, Jagoba Ormaetxeak, Kepa de Miguelek eta Iñigo Benitok osatzen dute boskotea. 2010ean heavy estiloko Idi Bihotz talde ezagunaren ibilaldia amaitu eta ezin izan zuten Bizar anaiek musika mundutik luzaro urrun ibili, eta hirukote aproposa lagun, urte eskasera sortu zuten Jare. Ostera, aurreko estilotik urrundu eta rock doinuetara hurbildu dira, abesti lasaiagoak eta pop melodietara hurreratuz. 2011ko apiril aldera

kaleratu zuten *Itxaropenaren ertzean* (Oihuka) estreinako lana; 11 abestik osatzen dute, "Xalbadarren heriotzean" abestiaren bertsioa batzen du, eta besteak beste, gaur egun Gatibuko Alex Sarduiren eta Operacion Triunfo telebistako saioan ezagun egindako Ainhoa Cantalapiedra abeslariaren kolaborazioa ditu. "Gauak eman didana" kantuaren bideo-kliperako euskal kiro-lari ezagunen partehartzea ere lortu zuten.

Horrenbestez, talde benetan interesgarri honen zuzenekoagaz gozatzeko aukera izango duzu "etxean bertan", Sopelan; gorde urtarrilerako hitzordua agendan! ○

## kontzertuak > Gabonetakoak

Sasoi honetan leku askotan antolatzen dira Gabonetako Kontzertuak, izan abesten zein musika-eskolen emanaldiak. Esaterako, Astrabuduko San Lorenzo elizan, hilaren 26tik 28ra (20:00), aukera ederra egongo da hainbat abesbatzaz gozatzeko: eguaztenean B.B. Kantus Koralak (Getxo; ahots mistoak), Iparralde Abesbatzak (Derio; ahots baxuak) eta Astrabuduko Jubilatuen Abesbatzak (mistoak) eskainiko dute kantaldia; eguenean Euskeria Abesbatza (Bilbo; mistoak), Urretxindorrek Abesbatza (Bilbo; ahots baxuak) eta Itxartu Abesbatzaren (Getxo; ahots mistoak) emanaldia izango da, eta barikuan Sociedad Coral Basauri (Basauri; ahots mistoak), Coral Lagun Beti (Barakaldo; baxuak) eta Abots Alai Abesbatzaren (Astrabudua; ahots zuriak) txanda izango da.

Info+: [www.erandio.net](http://www.erandio.net)

## diskoa > apaizak ahots gora!

*Gogor* diskoa (11 euro) 14 abestik osatu zuten eta oraintsu berrargitaratu du Agorila diskoetxeak. 1968an Derioko seminarioan euskal apaizek egin zuten itxialdian grabatu ziren kantuak. 50 apaiz bikaitar baino gehiagok partu hartu zuten, protestaren arrazoiak hauek: herriagaz bat egingo zuten eliza aldarrikatu, frankismoaren kontra zeudela adierazi, euskal langileen aurkako zapalkuntza salatu, euskara eta Euskal Herria defenditzeko asmoa, elizaren menpekotasun ekonomikoa eta politikoa salatu e.a. Garai hartan abestiak eta diskoa debekatu egin zituzten.

Info+: [www.agorila.com](http://www.agorila.com)

## diskoak

**Zazpi Kantoietan**  
Gatibu  
Baga Biga



Taldearen 10. urteurrenagaz bosgarren lana aurkeztu dute Gatibukoek. Aurrekoa zuzeneko grabazioak egin zuten, lasaitasunez, eta honako honetan estudioa itzuli dira. Zazpi abestik osatzen dute lana, eta 12 euroan dago salgai, "garaiotara egokituz" euren esanetan. Doinu aldetik, *rock&roll-a eta egurre!* Gatibuko markagaz!

**Katuska gorriak**  
Josu Bergara  
Autoekoizpena



Josu Bergara Eako kantautoreak hirugarren diskoa argitaratu du. 2006an lehenengo diskoa aurkeztu zuenetik, kontzertu andana eskaini ditu han-hemen, adib.: London,artzelona, Madril eta Euskal Herriko hainbat herritan. Pau Alabajos Valentiako kantautore, Napoka Iria-koak eta Iratxe Mugire kantautorea izan ditu kolaboratzaile.

**Anai Arrebak**  
Anai Arrebak  
Boniberenea Ekintzak



Bost abestiko EP-a kaleratu ostean, oraingoan diskoa dakar besapean Pasaiaiko taldeak. Disko-musika, funka, soula eta rocka buztartzen ditu 10 kantak osatzen duen lehenengo lan honek. Euskal Herriko hamaika plazatan ibili dira euren eskaintza dantza-garriagaz eta dibertigarriagaz; hori guztia eta apur bat gehiago batu dute taldearen izen bereko diskoan.



etorri eta ikusi!!

**MORIXA**

liburudenda

Alargorta 8 (Euzko Herria kaleko bar) Tf. 94 491 68 05 Algorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu **%50eko** deskontua izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean Tf. 94 430 15 00 (15 eguneko epemuga)

**I**

**Iñaki Bitxitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45 Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

## Entzun, itxi begiak

**Literatura** idatzia **entzuteko** hainbat eskaintza dago sarean, euskaraz

**Literatura**-errezitaldiek, irakurketa-saio kolektiboek, irakurraldiek eta abarrek bere lekutxoak, txikitxoak bada ere, egin edo bidezidorrak zabaldu eta horiek ugaltu ahala, entzuteko literaturaren, literatura idatzia ahoz gora irakurtzeko eta gozatzeko kolektiboki egiten diren ekimenak bide barriak jorratzen doaz. Gure herrian, ahozko literaturak itzelezko ibilaldia eta ibilbidea izan du, behar beste balioetsi ez den arren; ostera, gaur egun merezi duen garrantzia emon aldera, han-hemenka ekimenak sortzen eta garatzen dabilta.

Oraingo honetan, teknologia barrien hedatze eta zabaltze-baliabideak baliatuz martxan dauden halako biren barri emongo dugu orri honetan: alde batetik, *etxegiroan.com* eta, bestetik, *Xerezaderen*

**«Bi baino aipatzearen, etxegiroan.com eta Xerezaderen artxiboa»**

*Artxiboa*. Lehenengoa Maria Uriartek eta Tomas F. Juanesek egiten dute: narrazio laburrak, poemak, liburu-pasarteak eta haurrentzako ipuinak grabatu eta editatzen dituzte, musikaz batera; eta sarean ipini edonork entzun-gozatzeko. Itsuentzako eskoletarako lanabes moduan hasi zen Uriarte horrelakoak grabatzen, hor

liburuak

**Atzerri**  
Mikel Antza  
Susa

Presoak zigor-ziegetara eroateko ardura duen zaindarrak emoten dio hasiera nobelari. *"Nobela eliptiko eta alde bakarrekoa ateratzen zait"*, azaldu du donostiarrak grabazio bidez kartzelatik. Antzaren berbetan *"bizitakotik eta asmatutakotik"* du eleberriak.

**Xerezaderen Artxiboa**  
Entzuteko literatura

2012/11/17 10:43:37-416 GMT+1

**BADATOR XEREZADEREN (1/11/11)**

AZARAREN 23AN, OITRALA, eskualdeko, BILKORRIKAKO (berri) (San Antzen alorrean) (berri)

**Literatur testuen irakurketa glamurosoa eta umorez betea**

Soyulde Lantzarain, Eizabarren Jorrotzeko, Bego Arizaga, Bego Arizaga eta Xerezaderen Artxiboa

Azaroaren 23an, barikua 20:00etan Hika Alorrean (Bizeni kaina 1)

**HONEN ENGIURUAN**

Gure herria osatzen duten hainbat herri eta herri txikiak ditugu. Gure herria osatzen duten hainbat herri eta herri txikiak ditugu. Gure herria osatzen duten hainbat herri eta herri txikiak ditugu.

**BERAZOZKORRI**

Herria osatzen duten hainbat herri eta herri txikiak ditugu. Gure herria osatzen duten hainbat herri eta herri txikiak ditugu.

**ESTERAK**

BERAZOZKORRI

Xerezade Artxiborearen webguneako irudia

abiatu zen egitasmoa. Bigarrenak, Jasone Larrinagak eta Ana I. Moralesek Bilbo Hiria Irratian astelehenero, egiten duten saioa du oinarri. Estudioan podcast-a grabatu eta gero sarean eskegitzen dute euren blogean, *"ipuinak, kontakizun laburrak eta luzeak, bai eta fikziozkoak ez diren testuak ere. Mundu osoan idazleek lanei aho-tsa ipintzen diegu euskaraz"*.

Bestalde, ezin aipatu barik utzi, Susaren orrialdeak, asko idazleek eurek egiten, batzen dituen literatura-testuen irakurketak. Beste hainbeste ere badira... ○

Info+: *etxegiroan.com*  
Xerezaderena: *www.blogak.com/xalp*

**Urak dakarrena**  
Toti Martínez de Lezea  
Ttartalo

Liburua osatzen duten eta elkarrengatik loturik egiten diren fikziozko hogeita hamabost kondairak baztertuta eta ahaztuta, baina aldi berean hain presente egon diren euskal kostaldeko, Baionatik hasi eta Muskizera iraino, emakumeen memoria berreskuratzen dute.

[kirola]

## A. Castañeda eta M. Arraiza > triatloia biziz

"Gero eta zaletu gehiago ditu triatloiak; baina, orain, hori guztia bideratu behar dugu"



Triatloi zaletuek aukera izango dute Aste Santuko 5 egunetan kirolaz gozatzeko

**Triatloia** Arkaitz Castañeda eta Maite Arraizaren pasioa da. Horren adierazgarri, Aste Santurako Menorkan antolatzen ari diren training camp (entrenatzeko kanpamendua) egitasmoa; bost egunetz triatloia irakurtzeko saio teoriko-praktikoak. Uk euren batu da, prestatzen ari diren nondik-norakoak ezagutzeko.

—Zertan datza antolatzen ari zareten triatloi training camp?

—Entrenatzeko kanpamentuak erresistentzia-kiroletan oso modan jarri dira. Kanpamendu horietan entrenatzeaz gain, triatloia irakurtzeko saio teoriko-praktikoak jakintzak ikasten dira; nola entrenatu modu egokian, berbarako.

—Zein da zuen helburua?

—Orain dela urte batzuk saiatu nintzen horrelako dinamika aurrera ateratzen, baina triatloia ez zegoen hain zabalduta, eta ez zen posible izan. Baina, orain gero eta jende gehiago animatzen ari da, eta egoera ikusita beharrezkoa da hori guztia bideratzea; besteak beste, entrenatzaileak hezteak, eskolak sortzea txiki zein helduentzat.

Azken finean, antolatzen ari garen training camp triatloia mundua gurean bultzatzeko beste bide bat da.

—Zer eskaintza izango du triatloia entrenatzeko kanpamendua?

—Aste Santuko bost egunetan zehar eskaintza izango dugu; egunaren arabera, lasterketak, igeriketa, eta bizikleta saioak egongo dira; gainera, horiek grabatuko

**«Training kanpamenduan egunero, 3-4 saio teoriko-praktikoak izango dira»**

ditugu, parte hartzaileek euren akatsak ikusi, eta teknikak hobeto dituzten. Horrez gain, elikadurari buruzko hitzaldia izango da. Horrela, egunero 3-4 saio tekniko-praktiko egongo da; azken egunetan, berriz, triatloia antolatuko dugu.

—Zelakoa da gurean triatloia egoera?

—Orain hiru urtetik hona sekulako igotza izan du kirol honek; halere, parte-hartze horrek azpiegitura behar du; klubak, eskolak, teknifikazioa, dendak, entrenatzaileak sortu behar ditugu.○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa Kirol moda**



**350 m<sup>2</sup>**  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

**Lacofris S.L.**



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA



**Fernando Calvo Gaztañaga** > sakelakorako 'Spotbros' aplikazioa

“Bat-bateko mezularitza-sistema da gurea, baina funtzio gehiago dauzka”

**Enpresa-Administrazioan eta Zuzendaritzan lizentziatu zen Fernando Calvo Gaztañaga getxoztarra eta, iaz, Spotbros enpresa sortu zuen inguruko beste hiru lagunegaz batera: bat-bateko mezularitza-aplikazioa da Spotbros, sakelakoentzat. Otsailean kaleratu zuten eta 600.000 erabiltzaile lortu dute hilabete gutxian; Madrilen daukate enpresaren egoitza eta lantokia.**



G. Rodriguez, F. Calvo, A. Lopez eta A. Marcos. ARGAZKIA: Naroa Fernandez

—Jendea WhatsApp aplikazioagaz zortuta dabilenean Spotbros kaleratu duzue: zertan dira berdinak eta zertan ez? —Antzekotasuna da bat-bateko mezularitzan oinarritzen dela Spotbros: lagunak eta talde pribatuen artean hitz egin dezakezu. Baina, gainera, aplikazioak segurtasun handiagoa dauka eta funtzio gehiago ditu. Antzeko aplikazioetan arlo soziala falta dela ikusi genuen eta lagunak sare soziala izateaz gain, inguruan dagoen jendeagaz ere sare soziala izan dezakezu. Funtzionalitate bi garatu dugu ildo horretan: *shout* eta *spots*. *Shout*-en bitartez mezua jaurti diezaiekezu inguruan dauden erabiltzaileei; adibidez, hiri ezezagun batean zaudela, galde dezakezu non bazkaldu edo antzekoak. *Spots*, barriz, *chat*-taldeak dira: gai jakin bati buruzko *spots* bat sor dezaket Bilbon eta handik igarotzen den edonork ikus dezake. Horrela, erabiltzaile-komunitatea sortzen da eta intereseko gai horretaz hitz egiten dute; adibidez, Bilbon badago kontrolen inguruko *spots* bat eta 3.000 erabiltzaile informatzen du non dagoen kontrola, eta beste gai batzuei buruzkoak ere: denbora-bankua, autoak partekatzea, jatetxeak e.a. Android eta iPhone

sistemetan erabil daitezke Spotbros. —Segurtasuna aipatu duzula, polemika egon da Deustuko unibertsitateko ikasle-argazkien lapurreta dela-eta. —Guri ere bota gura ziguten errua eta gezurra zen, ez geneukan zerikusirik. Guk hiru gauza egiten dugu segurtasun arloan. Lehena, ‘aes 256 bits’ zifratua erabiltzen dugu: Obamak isilpeko agirietarako erabiltzen duena. Bigarrenik, in-

nazioartean: zein da hurrengo erronka? —Aplikazioa doakoa da eta, beraz, interesgarriena litzateke konektatu ahal izatea bezeroak eta saltokiak, bat-bateko mezularitzaren bitartez. Hori lortu gura dugu etorkizunean. —Getxo eta ingurukoak zarete, Madriler joan zarete eta webgunea ingelesez daukazue oso-osorik: hemendik atera behar da arrakasta lortzeko?

**“Spotbros sakelakorako doako aplikazioa da, eta Android zein iPhone sistemetan erabil daitezke”**

formazioa hilero ezabatzen dugu eta desagertzen da. Azkenik, lagun-harremanetan oinarritzen dugu dena, eta ez telefono zenbakietan: elkarren telefonoak dauzkagunean egin dezakegu lotura elkarren artean, bestela lagun-eskaera bidali behar didazu eta nik onartu. —Urrian zabaldu zenuten aplikazioa

—Madrilen ere zaila da prestatutako jendea lortzea *Star Up* batean sartzeko prest, hasi besterik ez dira egin eta arriskua daukate, ez dakigu-eta urtebete barru funtzionatzen jarraituko ete duen. Baina beno, apurka jendea animatzen ari da. Antzeko aplikazio asko dago, baina gehienak beretsuak: gu harago goaz. ○

## Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoak. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko [www.euskalherrikomitologia.com](http://www.euskalherrikomitologia.com) webgunera jo.



Mari. Ilustrazioa: Daniel Castello

## Majuri olerkiak

Lurpeko erreinuan  
Zure boterea nagusitzen da  
Maju jainkoa.

Milaka kobazulo daude  
Aizkorritik Urbasaraino,  
Aturritik Ibaizabaleraino,  
baita Meatzaldean ere  
eta hori(ek) guztiak  
zure etxeak dira.

Zaharrek bakarrik  
aipatzen zaituzte,  
gaur egungo munduan,  
modernitatean,  
desagertu bailitzan.

Baina guretzako,  
antzinako sinesmenetan  
fedea dugunontzat,  
bizirik zaude.

“Zahar hitzak, zuhur hitzak”



[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



**portu zaharra bar**

Portu Zaharra kalea 35  
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)  
Tf. 94 460 20 33  
portuzaharra@portuzaharra.com  
www.portuzaharra.com



**SOLAETXE**

Eguneko menua      **Jatetxea**      Karta  
Asteburuko menua           Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



**La Triangu.**

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

**94 491 13 37**  
**publiuk@aldizkaria.biz**



**BODEGILLA BUTRON**

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)  
**94 430 01 74**  
www.bodeguillabutron.com



**txakoli mota gane tx.**  
txakolina

Leioa-Unbe errepeidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio  
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



**UNAI TABERNA**  
**JATETXEA**

C/ Alangobarri n°3 C.P. 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



**CAFETERIA COSMOPOLITA**

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo  
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



**GURE ETXEA**  
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA

Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



**GURE ETXEA**  
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA

Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



**Asador Cervecera BERANGO**

Oilasko erreak, indabak, txulettoa, arraina txingarretan  
Menu bereziak enbarguz-Gabonetako Menu bereziak

Pollo asado, txulettoa, alabias, pescados a la brasa. Menus especiales por encargo-Menus especiales Navidad

EGUSKIZA 32- 48940 BERANGO- Erreserbak 658 89 56 93- Tf. 94 668 13 34



**Berango**

Asador Berango



**JAN-TOBI ORMAZABAL**

Eguneko menua  
Menu bereziak  
Karta  
Erreserbak:

**94 476 2389**  
**607 21 89 61**  
LUTXANA-ERANDIO

## Intxaur-saltsa

gabonetako azkenburu nagusia



Intxaur-saltsa betiko gabon-errezeta erraz asko egiten da

**Negua heldu da,** eta haregaz batera hezurretaraino sartzen zaigun hotza ere bai; horregatik, hainbat modutan hari aurre egiten ahalegintzen gara, besteak beste, jaki beroak hartuz. Oraingoan, dakarkizugun jakiak, saltsak, alegia, bero mantentzen lagun diezaguke. Gurean tradizio handiko jakia aurkeztzen ari gatzazkizu: Intxaur-saltsa. Has gaitezen, bada, saltsa gozo honen errezeta deskribatzen; lehengo eta behin, intxaurrak zuritu behar ditugu, ondoren xehe-xehe txikitzeko, ore fina lortu arte. Jarraian, intxaur-orea azukregaz nahastuko dugu. Horrez gainera, lapiko batean esnea berotzen ipiniko dugu, limoi-azala eta kanela gehituko dizkiogu esneak zapore gozo-gozoa lor

dezan. Esnea borborka hastean, sutatik kendu, eta limoia eta kanela zatitxoak kenduko ditugu, ondoren, esnea intxaur oreagaz nahasteko. Behin hori eginda, bueltak eman beharko dizkiogu dena ondo urtu arte; horretarako, sutan jarriko dugu barriro ere, eta pazientzia handiagaz bueltak emango dizkiogu. Horrela, gure nahasketa apurka-apurka lodituz joango da; hiru ordu laurdenean gutxi gorabehera prest izango dugu gure saltsa. Azkenik epeltzen utzi eta jan ahal izango dugu, nahi dutenek hotz ere dastatzeko aukera izango dute. On egin! o

**Osagaiak: 250g intxaur zurituta, 1l esne, 250 g azukre, limoi-azal zatitxo bat, kanela zati bat.**



**LAIAK**  
Taberna



**BASARTENA**

**URDULIZ**

Teléfono: 946 761 128



**JUAN-MARI**  
Harategia eta txarkuteria

**ARTESANA**

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25  
**AREETA**




**KONTXI**  
**ZUAZUBISKAR**

**URDAITEGIXA**

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA  
Tf. 94 491 02 93



**TXIBERRI**  
edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
Tf. 94 676 07 15



**Taberna Berri**

Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf. 94 430 64 93





prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA  
Ariñluz z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

Torre 2  
48990 ALGORTA  
94 491 12 71  
iratialgorta@gmail.com

*irati*

OPARIAK MODA GAZTEA

## GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Frutu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13  
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88  
GETXO ALGORTA

*Turikaldai*

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren storb. 4B  
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 400 01 87  
48990 NEGURI 48990 GETXO

[horoskopoa]

### URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Zorionak... eta urte barri on! Zorion bikoitza, gainera, beste urte bat egin duzu-eta. Lagunak emozioz eta ilusioz zain daukazu, askari-ospakizunaren zain: ez hutsik egin!

### AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)  
Hurrengo egunetan tentuz ibili beharko duzu, gaixotzeko aukera handia izango duzu-eta. Ez hartu hotzik: arropa nahikoa jantzi eta ez ahaztu txanoa eta eskularruak!

### GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Oraindino ez diozu gutuna idatzi Olenzerori eta zain daukazu: triste ipiniko da zure barririk ez badauka. Hartu tartetxo bat eta idatzi lerro batzuk, eskertuko dizu-eta!

### META



(Irailak 17 urriak 16)  
Hotzak izututa eguzki bila joango zara hondartzara, Eva Mirentxu legez. Baina ez dakizu nora: Karibera? Asia aldera? Onena izango da ateratzen den lehen hegaldian igo eta ezustekoa hartzea!

### OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Zein pozik zabilzan tenperatura fresko honegaz, otso! Elur eta hotzaren maitale, eguraldiak ez dizu kale egingo urte akabu honetan. Gainontzekoak, ostera, ez dira horren pozik egongo...

### HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Dana azkenerako utzi duzu, ohi legez! Orain ikasteko apunte mordoak daukazu pilotuta eta laster datoz azterketak. Ekin lanari behingoz, damutuko zaizu bestela!

### LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Urte osoan zain egon zara eta azkenean etorriko zaizu maitetxoak, Gabonetarako, turroia besapean dakarrela. Atera bisitari ahalik eta etekin handiena.

### HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)  
Urte osoan loterian jokatu, astero-astero xahutu duzu dirua eta, azkenean, saria lortuko duzu. Zelakoa den jakiteko, ostera, Gabonak arte itxaron behar. Zorionak! Ez gastatu dana kolpean!

### ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Daborduko opari danak prest: liburu-sorta ederra erosi zenuen Durangon eta etxerako lanak eginda daukazu. Orain itxaron behar ea Olenzerok zer edo zer ekartzen dizun...

### EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Azkenean hartuko duzu opor! Gabon apartak igaroko dituzu, lagunartean egun batzuk eta bidaiatzen besteak. Zorionekoa zu! Gozatu orain, uda arte ez duzu-eta opor gehiago izango!

### IRATZEA




(Abuztuak 18 irailak 16)  
Baina zer idatzi diozu Olenzerori: gutuna edo jostailu-dendako katalogoa? Benetan hainbeste gauza behar duzu? Ez zaitetz izan zekena; azkenean zugaz haserretu eta ez dizu ezer ekarriko...

### NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)  
Buruia galduta zabilta azken egunotan: Saharako haize sirokoak jota zaude ala? Dena den, ez dizu asko iraungo siroko horrek, hemengo haize hotzak berehala argituko dizu-eta burua.



Kopiak **SALGAI**  
UK aldizkariaren bulegoan

Martikoena 16, 2. solairua  
Algorta (Getxo)



Alangoko  
Osasun  
Zentroaren  
alboan

Urbe Kostako aldizkariaren ekoizpena



**ARIMA**  
Sormen Tailerra



Arte Akademia berria Gorlizen

Ludoteka artistikoa  
Margolaritza ikastaroak  
Argazkilaritza ikastaroak  
Bisuteria tailerra  
Arte denda espezializatua  
Eta abar luze bat

c/ Eloisa Artaza, 2. Gorliz 48630  
tel. 629427966

arimasormentailerra@gmail.com  
www.arimasormentailerra.com



gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Zutabe eta lerro guztien baturen emaitzak idatzita dituzula kontuan izanda, eman egizu animalia bakoitzaren balioa.

					60		=	
					115		=	
					105		=	
					110		=	
					45		=	
100	80	100	80	75				

gaztetxoak > bilatu eta irabazi

*Nork eskaini dizkigu oraingoan bere aitormenak?*

- Donemiliagako Marik
- Maria Domingezek
- Mari Domingik

**La Gusana** liburudenda SARIA  
 Tellagorri plaza, Algorta  
 Tf. 94 491 14 12 **lagusana**

> Aurrekoaren erantzuna: 5 arroakoa  
 > Irabazlea: **Iker Deusto\***  
 \*deitu telefonoz: 94 491 13 37

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal barri honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

**Oinutsik** SARIA  
 kontsulta podologikoa   
 Zubigane 4, Sopelana  
 Tf. 94 404 74 20  
 oinutsik@euskalnet.net

> Aurrekoaren erantzuna: Maju  
 > Irabazlea: **Olaia Martinez\***  
 \*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



AITOR ETXEBARRIAK UTTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

**SOPELAKO ETXEBARRIA FAMILIA, 1951**

**Sopeloztarrek** Palazioko lande (Campa de Palacios) deitutakoan (gaur egun Jauregizar plazan), hor dugu Maria Etxebarria sopeloztarraren familia; senarra ere, kasualitatez, Etxebarria (Sebastian Etxebarria leioztarra). Seguruenez, San Pedro jaiak (ekainaren 29a) izango ziren, Etxebarria Etxebarria familiaren Casa Herreriara bazkaltzera gonbidatuak. Aipaturako landan etxe dotore bat zegoen, lau etxebizitza eta behealdean kortak zituena. Argazkiaren atzealdean Fraidemendi mendixka dugu; ezkerrean Avelino Garairen etxea; erdian nekazari-sindikaturia baserriko tresnak eta ganaduarentzako janaria saltzen zituena; eta eskuinean Zubigane, Alejandro Markaida eta Maria Sarriaren etxea. ○

**Atzean:** Ismael Etxebarria (GB), ? (ez zen senitartekoa), Sebastian Etxebarria (GB), Aitor Etxebarria (umea, amaren besoetan), Maria Etxebarria (GB), Begoña Zuazua (GB), Karmele Etxebarria (umea, amari besarkatuta) (GB), Feli Etxebarria (GB), Juanita Lejarraga (amama) (GB), ? (ez zen senitartekoa), Miren Corbera.

**Aurrean:** Agurtzane Corbera (umea, amaren besoetan), Pilar Etxebarria (GB), Maridori Etxebarria, Isidora (ez zen senitartekoa, baina senitartekotzat zuten Casa Herrerian) (GB).

Oharra: Victor Etxebarria, aitite, falta da argazkian; arrantza patroia zen eta itsasoan zebilen lanean.



[aitormenak]

**MARI DOMINGI** > Gabonetako irri-sortzaile

“Jendeak oparirik eska ez dezala amets dut, hau estresa hau!”

Testua: **Nerea Guijarrubia****Defini egizu zeure burua berba bitan.**

Alaia eta izaera handikoa.

**Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?**

Ni ezingo nintzateke menditik urrun bizi; horrenbestez basozain edo perretxiko-biltzaile profesional izango nintzateke.

**Gabonetan egitea gorroto duzun zerbait.**

Gehiegi jatea; urtarrilean, entrenamendu fisiko gogorra egin behar izaten dut, mendian gora eta behera, lotu barik. Hainbeste kilo hartu ostean...

**Zure haurtzaroko oroitzapen bat?**

Errekan lagunakaz hartzen nituen bainuak; horiek bai, emozio gogorrak.

**Eta aitor dezakezun bizio bat?**

Likorez betetako bonboiak. Kar-kar-kar.

**Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera?**

Olentzero faltan botako nuke, baina, ez nuke nigaz eroango; agian, botila bat anis lagunkide ona izan liteke.

**Zein da zure ametsetako bat?**

Jendeak opariak eskatzeari uztea, hau estresa bizi duguna garai hauetan!

**Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?**

Anbotoko Mariren leizea; beti, oso ondo hartzen nau Marik. Benetan lagun ona dut. Bertan batu, eta gure sorginkeriez berba egiten dugu.

**Gorroto duzun topikoa?**

“Gabonetan denok alai egon behar dugu”. Gabonetan bakarrik ez, urte osoan alai egon behar dugu!

**Lagunik onena?**

Olentzero, noski. Oso ondo konpontzen gara; hori bai, batzuetan haserretu ere egiten gara, lagun guztiak bezalaxe.

**Zer barri irakurri nahiko zenuke biharko egunkarian?**

“Gabonetako opariak elkarri emandako irri, musu, eta besarkadak dira”. ○

**LABURREAN**—Asko Mari Domingi entzun, eta jarraian “Horra Mari Domingi” gabon-kanta ospetsuagaz gogoratuko dira. Baina, goialdeko galderetan ikusi ahal izan dugunez, abestia baino eta bigarren mailako protagonista baino askoz gehiago da gure Mari Domingi: emakume umoretsu, ausart, langile eta maitagarria da Euskal Herriko sorginik eta gabonzaleena. Berak aitortu legez, Gabonak maite ditu; halere, Olentzero eta bera lanez lepo egoten dira garai hauetan; horregatik, denok Gabonak beste modu batean bizitzeko aldarria zabaldu digu: hainbeste opari eskatu beharrean, etzeko zein lagunei musu, besarkada eta irriak opa diezazkiegun. Horra hor, Mari Domingiren proposamena; mosurik gura?

Atzeko jesarlekua estreinatuta aurretik...

**Praktika ezazu!**

**L** **Gidabaimena euskaraz ateratzeak saria dakar!**

100 litroko erregai-txartela. Asteburuko egonaldia **landa-etxe** batean. **iPad 3** bidaia eta ibilbideen aplikazioak sartuta.

Estreina ezazu atzeko jesarlekua behar duzun guztiarekin!

Ikasi eta irabazi!

Galdetu zure autoeskolan edo euskara zerbitzuan!  
**Erandio:** Altzaga, Arias, Astrabudua, Erandio eta Gaztedi. **Getxo:** Algorta, Amezi, Arias, Getxo, San Inazio eta Uribe Kosta. **Plentzia:** Uribe Kosta. **Sopela:** Kaiku, Sopelana eta Uribe Kosta. **Urduliz:** Kaiku.

URIBEKOSTAKO  
 EUSKARA BIZI  
 ERANDIO ELIZATON LEBALA  
 ALKARBIDE  
 BFA DFB  
 EUSKAL GOBIERNU VASCO  
 EUDEL



# B A D A T O R



## Hamaika aukera euskaraz bizitzeko eta Gabonak Getxon gozatzeko

Olentzero kalejirak, Gabonak ludotekan eta gaztelekuan,  
Gabonak Kultur Etxeetan, Txan magoa, kale animazioa, Getxolandia, Izotz pista...

Informazioa: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)



EUSKARA BIZI



Horra Horra Algortako Olentzero Batzordea • Itxas Argia dantza taldea • Berantzagi dantza taldea • Zasi Eskola dantza taldea  
Gobela ikastolako Txatxalin gurasoen elkarte • Neguriako Gobela taldea